BIZKAIKO ALDIZKARI OFIZIALA BAO



II. ATALA

## BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

### Bilbao Ekintza, E.P.E.L.

**Bilbao Ekintza EPELeren Iragarkia, zeinaren bitartez Bilbao Ekintza EPELeren plantillako lanpostuak jabetzan betetzeko salbuespenezko finkatze-prozesuak eta finkatze-prozesu bereziak arautuko dituzten oinarri espezifikoen onespenaren eta argitalpenaren berri ematen den.**

Bilbao Ekintza EPELren Zuzendaritza Nagusiak honako ebazpen hau eman du:

*Lehenengoa:* Enplegu Publikoaren behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriak ezartzen dituen abenduaren 28ko 20/2021 Legearen (aurrerantzean 20/2021 Legea) seigarren eta zortzigarren xedapen gehigarrietan ezarri da iraupen luzeko behin-behineko enplegua finkatzeko salbuespenezko deialdia egiteko aukera ematen dela, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 61.6 eta 61.7 artikuluekin bat etorriz, bai eta lehiaketa-sistemaren bidez egitea ere, 2016ko urtarrilaren 1a baino lehen etenik gabe behin-behinean beteta egon diren lanpostuen kasuan.

Era berean, 2. artikuluari jarraikiz, iraupen luzeko behin-behineko enplegua finkatzeko deialdi berezia egin ahal izango da, oposizio-lehiaketaren sistemaren bitartez, baldin eta plazek aurrekontu-zuzkidura badute eta behin-behinean eta etenik gabe bete badira, gutxienez, 2020ko abenduaren 31 baino lehenengoko hiru urteetan.

*Bigarrena:* Horrenbestez, Bilbao Ekintzaren Administrazio Kontseiluaren 2022ko maiatzaren 16ko (100. zenbakidun Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, maiatzaren 26koa) erabakian xedatutakoa aintzat hartuta, zeinaren bitartez Bilbao Ekintzaren enplegu publikoaren eskaintza onetsi zen Enplegu Publikoaren behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriak ezartzen dituen abenduaren 28ko 20/2021 Legean jasotako finkatze-prozesuaren bitartez, Bilbao Ekintzako Zuzendaritza Nagusiak onetsi egin du Bilbao Ekintza EPELeko plantillaren lanpostuak jabetzan betetzeko finkatze-prozesu hauetako oinarri espezifikoak onestea, eta, aldi berean, dagozkien hautaketa-prozesuak deitzea:

a) Enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuak, lehiaketa-sistemaren bitartez:

— Enpresa-sustapenerako teknikariaren lanpostu bat, nahitaezko 3. hizkuntza-eskakizunarekin, ebazpen honen eranskinean jaso diren baldintzekin.

— Suspertze Bulegoko koordinatzailearen lanpostu bat, nahitaezko hizkuntza-eskakizunik gabe, ebazpen honen eranskinean jaso diren baldintzekin.

b) Enplegua finkatzeko prozesu bereziak, oposizio-lehiaketaren bitartez,

— Ekonomia eta Finantza arduradunaren lanpostu bat, nahitaezko hizkuntza-eskakizunik gabe, ebazpen honen eranskinean jaso diren baldintzekin.

— Inbertsioak erakartzeko teknikariaren lanpostu bat, nahitaezko 3. hizkuntza-eskakizunarekin, ebazpen honen eranskinean jaso diren baldintzekin.

— Kontratazioko teknikari juridikoaren lanpostu bat, nahitaezko 3. hizkuntza-eskakizunarekin, ebazpen honen eranskinean jaso diren baldintzekin.

*Hirugarrena:* Prozeduren oinarri espezifikoak ebazpen honen eranskinean jaso dira.

*Laugarrena:* Ebazpen honen aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu daiteke, hilabeteko epean, ebazpena eman duen organoaren aurrean; bestela, administrazioarekiko auzien jurisdikzioan aurkaratu daiteke zuzenean, bi hilabeteko epean, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik aurrera zenbatzen hasita. Hori guztia Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112. 123. eta 124. artikuluetan eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioari buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Bilbon, 2022ko abenduaren 5ean.—Bilbao Ekintza EPELeko zuzendari nagusia, F. Javier Garcinuño Zabala

eek: BAO-2022a237-(II-5480)

ERANSKINA

**EGONKORTZEKO EZ OHIKO PROZESUAREN DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK, JABETZAN ETA LEHIAKETA SISTEMAREN BIDEZ HORNITZEKO ERREHABILITAZIO BULEGOKO KOORDINATZAILEAREN LANPOSTU BAT**

## 1. Deialdiko lanpostua

Ez ohiko moduan, behin bakarrik eta lehiaketa sistemaren bidez errehabilitazio bulegoko koordinatzailearen lanpostu baterako deialdia egin da hauekin bat etorriz:

— Kategoria: Koordinatzailea

— Barne sustapena: 1

— Hizkuntza eskakizuna: nahitaezkotasunik gabe

— Hautaketa sistema: lehiaketa

Barne sustapena egongo dela dioen aipamenari dagokionez, ulertu behar da deialdietan aldi berean egingo dela txanda askeko eta barne sustapeneko prozesua. Hori horrela, prozesua gainditu duten bi txandetako izangaiak prozesu berean baldin badaude, barne sustapeneko prozesuaren bitartez parte hartu dutenek izango dute lanpostua eskuratzeko lehentasuna. Barne sustapeneko txandan izangairik ez badago, txanda askeko prozesutik baino ez da jarraituko prozesuarekin.

Lanpostuen izendapenak eta kategoriaren identifikazioa lanpostuen gaur egungo ezaugarriak kontuan hartuz erabiliko dira. Bilbao Ekintzaren lanpostuen katalogoa prestatzen ari garenez, baliteke horren ondoriozko egokitzapenak egin behar izatea guztiz prest dagoenean.

## 2. Parte hartzeko baldintzak

2.1. Plazak lortu nahi dituztenek egonkortzeko oinarri orokorretako 5.1 atalean oro har ezarritako betekizunak bete beharko dituzte.

## 3. Deitutako lanpostuari dagozkion betekizun espezifikoak

3.1. Laneratzeko titulazioa. Unibertsitateko gradu titulua edo baliokidea izatea

3.2. Euskara: Lanpostu honek ez du esleituta nahitaezko hizkuntza eskakizunik

## 4. Hautaketa prozesua

Hautaketa sistema lehiaketa izango da. Merezimendu guztiak eskaeran/erantzukizunpeko adierazpenean aipatu beharko dira berau aurkezteko epearen barnean.

Merezimenduak eskuratzeko gehieneko epea eskariak/erantzukizunpeko adierazpena aurkezteko azken eguna izango da.

Eskaera/erantzukizunpeko adierazpena zein egunetan aurkeztu den albo batera utzita, merezimenduak zenbatuko dira eskaerak/erantzukizunpeko adierazpenak aurkezteko azken egunera arte.

Prozesua kalifikatzeko baremo honi jarraituta batuko dira esleitutako puntuak:

### a) Esperientzia orokorra

Administrazio publikoetako plazetan edo postuetan emandako zerbitzuak baloratuko dira, baldin eta horien laneratzeko betekizuna bat badator oinarri hauetako 3.1 ataleko aurreikuspenekin. Gehienez ere 30,00 (hogeita hamar) puntu eskuratu ahalko dira eta 3,75 (hiru koma hirurogeita hamabost) puntu jasoko dira lan egindako urte bakoitzeko edo sei hilabete baino gehiagoko aldi bakoitzeko.

### b) Esperientzia espezifikoa

Esperientzia orokorraren baloraziotik bereizita eta modu osagarrian baloratuko dira Bilbao Ekintzako errehabilitazio bulegoko koordinatzaile lanpostuetako Koordinatzailearen kategorian emandako zerbitzuak graduko unibertsitate titulazioarekin edo baliokidearekin. Gehienez ere 60,00 (hirurogei) puntu eskuratu ahalko dira eta lan egindako

eek: BAO-2022a237-(II-5480)

urtebete edo sei hilabete baino gehiagoko aldi bakoitzeko 7,50 (zazpi koma berrogeita hamar) puntu eskuratuko dira 2015eko urtarrilaren 1etik aurrera zenbatzen hasita.

Prozesu hauek arautzen dituzten oinarri orokorrekin bat etorriz, administrazio publikoen kontzeptua indarreko araudiak esandakoaren arabera ulertuko da (bereziki, Enplegatu publikoaren oinarrizko estatutuaren testu bateginaren 2. artikuluaren arabera).

c) Beste meritu batzuk

Atal honetan gehienez ere 10,00 (hamar) puntu eskuratu ahalko dira.

c.1) Informatika ezagutzak:

Informatika ezagutzak baloratuko dira. 1,25 (bat koma hogeita bost) puntu emango dira maila aurreratuko ziurtagiri bakoitzeko edo 0,75 (zero koma hirurogeita hamabost) puntu oinarrizko mailako edo maila bakarreko ziurtagiri bakoitzeko:

— Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 edo ondorengoa.

— Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 edo ondorengoa.

— Microsoft Access 2000/XP/2003 edo ondorengoa.

— Internet.

— Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/2010 edo ondorengoa, maila bakarra.

— Microsoft Outlook XP/2003/2010 edo ondorengoa, maila bakarra.

Moduluak gainditu izana egiaztatzeko, IT Txartela ziurtapen sistema erabiliko da oinarri orokorretan adierazitakoaren arabera. Modulu beraren zenbait bertsio egiaztatzen badira, horietako bakarra baloratuko da.

Deialdi honen ondorioetarako, maila aurreratua egiaztatzen dutenei oinarrizko maila ere egiaztatuko zaie, eta ondorioz, bakarrik goi-maila baloratuko da.

c.2) Hizkuntzak:

Gaztelania ez diren Europar Batasuneko hizkuntza ofizialak jakitea baloratuko da honakoaren arabera:

— B-2 maila edo handiagoa: 2,50 (bi koma berrogeita hamar) puntu.

Ezagutza egiaztatzen den hizkuntza bakoitzerako bakarrik ezagutza mailarik handiena puntuatuko da.

d) Euskara ezagutzak

Euskararen ezagutza bakarrik baloratuko da derrigortasun data igarota ez izateagatik baldintzatzat ez duten lanpostuetan, eta baremo honen arabera:

— 1. HE: 5,00 puntu.

— 2. HE: 10,00 puntu.

— 3. HE: 15,00 puntu.

**5. Lan poltsa**

Deialdi honek ez du lan poltsarik sortuko.

eek: BAO-2022a237-(II-5480)

ERANSKINA: ESKABIDEA

ANEXO: INSTANCIA

**Onarpen eskabidea / Solicitud de admisión**

**1. Deialdia / Convocatoria**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Deialdiaren izena / Nombre Convocatoria: | | | |
| Sartzeko sistemak: | Lehiaketa ☐ | Oposizioa ☐ | Oposizio-lehiaketa ☐ |
| Sistemas de acceso: | Concurso ☐ | Oposición ☐ | Concurso-oposición ☐ |
| **Txanda / Turno:** | Askea / Libre ☐ | | Barne-sustapena / Promoción interna ☐ |

**2. Norberaren datuak / Datos personales**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Lehenengo abizena / Primer apellido | Bigarren abizena / Segundo apellido | | Izena / Nombre |
| NAN / AIZ / DNI / NIE: | Naziotasuna / Nacionalidad: | Jaioteguna / Fecha de Nacimiento: | Sexua / Sexo: E / M ☐ G / H ☐ |
| E-posta / Correo electrónico | | | |

* Helbide elektronikoa edo telefono mugikorra ematen duten parte hartzaileek horiek erabiltzeko baimena ematen diote Bilbao.eus OPEri hautatze-prozesuan zehar egin ditzakeen jakinarazpenetarako.

* Los participantes que faciliten una dirección electrónica o teléfono móvil consienten su utilización para las comunicaciones que Bilbao.eus OPE pueda efectuar en el transcurso del proceso selectivo.

| | |
|---|---|
| Herria / País | Lurraldea / Provincia |
| Bizilekua / Localidad | PK / CP |
| Helbidea / Dirección | Ataria, eskailera, solairua, eskua eta atea / Portal, bis, escalera, piso, mano y puerta |
| Telefonoa / Teléfono fijo* | Telefono mugikorra / Teléfono móvil* |

*Es necesario introducir el teléfono fijo o el móvil

| | |
|---|---|
| EGOKITZAPENA/ADAPTACIÓN<br>Bai / Si ☐ Ez/No ☐ | **Azterketa egiteko behar dituzun baldintza bereziak eta kausa argitu/Especifique las adaptaciones para realizar el examen** |

Aukera ezazu oposizio-aldia egiteko nahi duzun hizkuntza
Seleccione el idioma en el que desea hacer la fase de oposición.
Euskara / Euskera ☐ Gaztelania / Castellano ☐

**3.- Betebeharrak / Requisitos**

| |
|---|
| Deialdian eskatutako titulazioa / Titulación exigida en la convocatoria: |
| Deialdian eskatutako beste betekizun batzuk / Otros requisitos exigidos |

eek: BAO-2022a237-(II-5480)

### 4. Euskera

| Profila **egiaztatzen dut** (jarri "X" dagokion lekuan) / **Acredito** el perfil (marcar con una "X" el correspondiente) | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 HE / PL1 | ☐ | 2HE / PL2 | ☐ | 3HE / PL3 | ☐ | 4HE / PL4 | ☐ |

### 5. Hizkuntzak / Idiomas

Profila **egiaztatzen dut** (jarri "X" dagokion lekuan) / **Acredito** el perfil (marcar con una "X" el correspondiente)

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Ingelesa/ Inglés | B1 Maila/ Nivel B1 | ☐ | B2 Maila/ Nivel B2 | ☐ | C1 Maila/ Nivel C1 | ☐ | C2 Maila/ Nivel C2 | ☐ |
| Frantsesa/Francés | B1 Maila/ Nivel B1 | ☐ | B2 Maila/ Nivel B2 | ☐ | C1 Maila/ Nivel C1 | ☐ | C2 Maila/ Nivel C2 | ☐ |
| Alemana/Alemán | B1 Maila/ Nivel B1 | ☐ | B2 Maila/ Nivel B2 | ☐ | C1 Maila/ Nivel C1 | ☐ | C2 Maila/ Nivel C2 | ☐ |
| Besteak /Otros …………………….. | B1 Maila/ Nivel B1 | ☐ | B2 Maila/ Nivel B2 | ☐ | C1 Maila/ Nivel C1 | ☐ | C2 Maila/ Nivel C2 | ☐ |
| …………………….. | B1 Maila/ Nivel B1 | ☐ | B2 Maila/ Nivel B2 | ☐ | C1 Maila/ Nivel C1 | ☐ | C2 Maila/ Nivel C2 | ☐ |

### 6. Kontratazio zerrendetan sarrera / Ingreso en Listas o bolsas de Contratación

| **Laukietan BAI ala EZ idatzi / Escriba en los recuadros SÍ ó NO:** | |
|---|---|
| Bilbao Ekintza EPELen indarrean dauden Oinarri Orokorren arabera, baimena ematen dut nire datuak Administrazio Publikoen beste erakunde batzuei lagatzeko, lan eskaintzak jasotze aldera.<br><br>Autorizo la cesión, a efectos de recibir ofertas de empleo, de mis datos personales a otras Entidades de las Administraciones Públicas, al amparo de lo establecido en las vigentes Bases Generales de Bilbao Ekintza, E.P.E.L. | BAI/SI ☐<br><br>EZ/NO ☐ |
| Baimena ematen diot Bilbao Ekintza EPELi, bide telematikoen bidez, nire eskabidean aipatutako nortasun, ezgaitasun, titulazio akademiko, ziurtagiri, hizkuntza eskakizun, IT txartel eta gidabaimenen datuak kontsulta eta egiazta ditzan, bere izapidetze administratiborako, hauek eskuragarri dauden heinean. Ez baduzu baimen hau ematen, dagozkion agiriak erantsi beharko dituzu.<br><br>Autorizo a Bilbao Ekintza, E.P.E.L. a consultar y verificar por medios telemáticos los datos de identidad, discapacidad, títulos académicos, certificados, perfiles lingüísticos, IT txartelas y permisos de conducción alegados en la solicitud para su tramitación administrativa, en la medida de la disponibilidad de los mismos. En caso de no dar la autorización, deberá aportar los documentos acreditativos correspondientes. | BAI/SI ☐<br><br>EZ/NO ☐ |
| Baimena ematen diot Bilbao Ekintza EPELi nire helbide elektronikoa eta telefono mugikorra erabiltzeko hautaketa prozesu honetan egin ditzakeen jakinarazpenetan.<br><br>Autorizo la utilización de la dirección electrónica y teléfono móvil aportados, para su utilización en las comunicaciones que Bilbao Ekintza, E.P.E.L. pueda efectuar en el transcurso del presente proceso selectivo. | BAI/SI ☐<br><br>EZ/NO ☐ |

eek: BAO-2022a237-(II-5480)

**7.- Merituak / Méritos**

| Merituen zerrenda / Relación de méritos | |
|---|---|
| **1** | |
| **2** | |
| **3** | |
| **4** | |
| **5** | |
| **6** | |
| **7** | |
| **8** | |
| **9** | |
| **10** | |
| **11** | |
| **12** | |
| **13** | |
| **14** | |
| **15** | |

Leku zabalagoa behar izanez gero, datu edota informazio gehigarrirako, eskabideari gehitutako eranskin batean egin beharko da.

En caso de necesitar más espacio para incluir datos o información adicional, deberá hacerse incorporando un anexo a la solicitud.

**Lege-informazioa / Información legal**

Behean sinatu duen pertsonak ESKATU DU hautaketa-prozesu honetan onartua izan dadin, eta, gainera, adierazi du, bere erantzukizunpean, eskaera honetan jasotako datuak benetakoak direla. Eskaera, hain zuen ere, bertan jasotako jarraibideei jarraikiz bete du. Bestalde, adierazi du deialdia arautzen duten oinarri orokorretan eta oinarri espezifikoetan eskatzen diren baldintzak betetzen dituela, osasun-egoerari dagokionak barne hartuta, eta, hala eskatzen zaionean, eskaeran jasotako datu guztiak dokumentu bidez frogatzeko prest dago.

La persona abajo firmante SOLICITA su admisión en el presente proceso selectivo y declara, bajo su responsabilidad, que son ciertos los datos consignados en esta solicitud, que ha cumplimentado la misma de conformidad con las instrucciones contenidas en la misma y que reúne las condiciones exigidas en las Bases Generales y en las Bases Específicas que rigen la convocatoria, incluidas las que se refieren a mi estado de salud, comprometiéndose a probar documentalmente todos los datos que figuran en la solicitud cuando le sean requeridos.

**Jarri "X" laukitxoan / Marque con una "X" en el recuadro**

☐ ZIN EGITEN DUT EDO AGINDU EGITEN DUT / DECLARO BAJO JURAMENTO O PROMETO

Izangaiek emandako datuak Bilbao Ekintza EPELek tratatuko ditu, PERTSONALA izeneko tratamenduaren bidez. Organo arduraduna Bilbao Ekintzaren Giza Baliabideen Arloa da. Interesdunek datuak ikusi, haiek zuzendu, ezabatu eta haien eramangarritasuna, mugaketa edo aurka egiteko eskubideak erabili ahal izango dituzte, eta horretarako, idatzizko jakinarazpena bidali beharko dute helbide honetara: Bilbao Ekintza, EPEL. Norentzat: Sail Juridikoa. Nafarroa kalea, 5. 2. solairua. 48001 Bilbo.

Los datos facilitados por las personas aspirantes serán tratados por Bilbao Ekintza, E.P.E.L bajo el tratamiento denominado PERSONAL, cuyo órgano responsable es el Área de Recursos Humanos de Bilbao Ekintza. Las personas interesadas podrán ejercitar los derechos de acceso, rectificación, supresión de datos y la portabilidad, limitación u oposición, enviando una comunicación escrita a la siguiente dirección: Bilbao Ekintza, E.P.E.L. Att. Departamento Juridico. c/ Navarra, 5. 2ª planta. 48001 Bilbao.

tokia / lugar urtea / año hilabetea / mes eguna / día

Sinadura / Firma

**BILBAO EKINTZA E.P.E.L. Zuzendari Nagusia / Dirección General Bilbao Ekintza E.P.E.L.**

eek: BAO-2022a237-(II-5480)

ERANSKINA

**EGONKORTZEKO PROZESU BEREZIAREN DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK, JABETZAN ETA LEHIAKETA-OPOSIZIO SISTEMAREN BIDEZ HORNITZEKO EKONOMIA ETA FINANTZA ARDURADUNAREN LANPOSTU BAT**

## 1. Deialdiko lanpostua

Honakoekin bat etorriz, ekonomia eta finantza arduradunaren lanpostu baterako deialdia egin da:

— Kategoria: Lineako koordinatzailea.

— Barne sustapena: 1.

— Hizkuntza eskakizuna: nahitaezkotasunik gabe.

— Hautaketa sistema: lehiaketa-oposizioa.

Barne sustapena egongo dela dioen aipamenari dagokionez, ulertu behar da deialdietan aldi berean egingo dela txanda askeko eta barne sustapeneko prozesua. Hori horrela, prozesua gainditu duten bi txandetako izangaiak prozesu berean baldin badaude, barne sustapeneko prozesuaren bitartez parte hartu dutenek izango dute lanpostua eskuratzeko lehentasuna. Barne sustapeneko txandan izangairik ez badago, txanda askeko prozesutik baino ez da jarraituko prozesuarekin.

Lanpostuen izendapenak eta kategoriaren identifikazioa lanpostuen gaur egungo ezaugarriak kontuan hartuz erabiliko dira. Bilbao Ekintzaren lanpostuen katalogoa prestatzen ari garenez, baliteke horren ondoriozko egokitzapenak egin behar izatea guztiz prest dagoenean.

## 2. Parte hartzeko baldintzak

2.1. Plazak lortu nahi dituztenek egonkortzeko oinarri orokorretako 5.1 paragrafoan oro har ezarritako betekizunak bete beharko dituzte.

## 3. Deitutako lanpostuari dagozkion betekizun espezifikoak

3.1. Laneratzeko titulazioa: Unibertsitateko gradu edo lizentziatura titulua izatea ikasketa hauetan: Graduko unibertsitate titulua Zientzia Politikoak, Zientzia Ekonomikoak, Enpresa Ikasketak, Merkataritzako Intendentea edo Aktuariotza ikasketetan, Toki araubideko indarreko legezko xedapenen testu bategina onesten duen apirilaren 18ko 781/1986 Legegintza Errege Dekretuaren 169.2.a) artikuluarekin bat etorriz. Hautagaiek titulazio hori izan beharko dute eskariak/erantzukizunpeko deklarazioa aurkezteko epea bukatzen denean.

3.2. Euskara: Lanpostu honek ez du esleituta nahitaezko hizkuntza eskakizunik

## 4. Hautaketa prozesua

Hautaketa sistema lehiaketa-oposizioa izango da:

A) *Oposizio fasea*

Oposizio fasean bi ariketa egingo dira, eta nahitaezkoak eta baztertzaileak izango dira.

Lehenengo ariketa: nahitaezkoa eta baztertzailea

Bi zati izango ditu eta egun berean elkarren segidan egingo dira. Gainera, epaimahaiak atseden hartzeko denbora bat utzi ahal izango die hautagaiei zati bien artean.

Lehenengo zatian test motako 60 galderadun galdetegiari erantzun beharko zaio idatziz. Galderak epaimahaiak aukeratuko ditu aurretiaz https://ope.bilbao.eus udalaren web orrian argitaratutako galdera multzotik. Bakarrik 50 izango dira ebaluagarriak eta 10 erreserbakoak izango dira. Lau erantzun posible izango dituzte eta bakarra izango da zuzena, eta erantsitako programako zati orokorreko (1etik 18ra arteko gaiak) arloetan oinarrituta egongo dira. Galderei erantzun beharko zaie epaimahaiak proba hasi aurretik esango duen gehieneko denboran.

eek: BAO-2022a237-(II-5480)

Azken 10 galderak erreserba galderak dira eta bakarrik kontuan hartuko dira 50 galderetako bat ezeztatzen bada.

Zati honen kalifikazioa 0,00 (zero) eta 24,00 (hogeita lau) puntu artekoa izango da. Zati honetan erantzun zuzen bakoitzak 1,00 (bat) puntu jasoko ditu eta erantzun oker bakoitzeko -0,33 (hogeita hamahiru ehunen) puntu kenduko dira. Horrela, lor daitekeen gehieneko puntuazio zuzena 50,00 (berrogeita hamar) puntukoa izango da, eta azken puntuazioko 24,00 (hogeita lau) puntuekiko baliokideak izango dira.

Erantzun gabeko galderek eta erantzun bikoitzek ez dute zigorrik jasoko.

Bigarren zatian idatziz 2 gai garatuko dituzte hautagaiek. Epaimahaiak ausaz 6 gai aterako ditu eta horietatik garatzeko biak hautatuko dituzte, eta gaiak erantsitako gaitegiko zati espezifikokoak izango dira.

Bi gaiak 3 orduan garatu beharko dituzte gehienez ere.

Ariketa honetan baloratuko dira unibertsitateko prestakuntza orokorra, ideiak argiak izatea eta antolatuta egotea, idatziz adierazteko erraztasuna, hautagaien ekarpen pertsonalak eta laburtzeko gaitasuna.

Ariketaren zati hori egin aurretik, epaimahaiak zuzenketa irizpideak eta puntuazio modua jakinaraziko ditu.

Bigarren zatiak 0,00 (zero) eta 16,00 (hamasei) puntu artean izango ditu, eta gutxienez 6,40 puntu eskuratu beharko dira gainditzeko.

Ariketa horrek 0,00 (zero) eta 40,00 (berrogei) puntu artean izango ditu, eta zuzenean kanporatuko dira gutxienez 16,00 (hamasei) puntu eskuratzen ez dituzten hautagaiak, baldin eta lehen ariketako bigarren zatian gutxienez 6,40 puntu eskuratzen badituzte.

Bigarren ariketa: nahitaezkoa eta baztertzailea

Epaimahaiak ariketa egin baino lehen proposatuko dituen bi gaien artean aukeratutako kasu praktiko bat ebatzi beharko dute hautagaiek gehienez ere 2 orduan.

Ariketa honetan honako hauek baloratuko dira funtsean: arrazoitzeko gaitasuna, antolaketa, planteatzeko eta ondorioak formulatzeko sistematika eta araudi aplikagarria ezagutzea eta behar bezala interpretatzea.

Ariketa hau egin aurretik, epaimahaiak zuzenketa irizpideak eta puntuazio modua jakinaraziko ditu.

Ariketa honek 0,00 (zero) eta 20,00 (hogei) puntu artean izango ditu, eta zuzenean kanporatuko dira gutxienez 8,00 (zortzi) puntu lortzen ez dituzten hautagaiak.

Oposizio faseko gehieneko puntuazioa

Fase honetan gehienez 60,00 (hirurogei) puntu eskuratu ahalko dira.

B) *Lehiaketa fasea*

Merezimendu guztiak eskaeran/erantzukizunpeko adierazpenean aipatu beharko dira berau aurkezteko epearen barnean.

Merezimenduak eskuratzeko gehieneko epea eskariak/erantzukizunpeko adierazpena aurkezteko azken eguna izango da.

Eskaera/erantzukizunpeko adierazpena zein egunetan aurkeztu den albo batera utzita, merezimenduak zenbatuko dira eskaerak/erantzukizunpeko adierazpenak aurkezteko azken egunera arte.

Prozesua kalifikatzeko baremo honi jarraituta batuko dira esleitutako puntuak:

a) Esperientzia orokorra

Administrazio publikoetako plazetan edo postuetan emandako zerbitzuak baloratuko dira, baldin eta horien laneratzeko betekizuna bat badator oinarri hauetako 3.1 ataleko aurreikuspenekin. Gehienez ere 20,00 (hogei) puntu eskuratu ahalko dira eta 2,86 (bi koma laurogeita sei) puntu jasoko dira lan egindako urte bakoitzeko edo sei hilabete baino gehiagoko aldi bakoitzeko.

eek: BAO-2022a237-(II-5480)

b) Esperientzia espezifikoa

Esperientzia orokorraren baloraziotik bereizita eta modu osagarrian baloratuko dira Bilbao Ekintzako ekonomia eta finantza arduradunaren lanpostuetako linea koordinatzaileko kategorian emandako zerbitzuak graduko unibertsitate titulazioarekin edo baliokidearekin. Gehienez ere 20,00 (hogei) puntu eskuratu ahalko dira eta lan egindako urtebete edo sei hilabete baino gehiagoko aldi bakoitzeko 2,86 (bi koma laurogeita sei) puntu eskuratuko dira 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera zenbatzen hasita.

Prozesu hauek arautzen dituzten oinarri orokorrekin bat etorriz, administrazio publikoen kontzeptua indarreko araudiak esandakoaren arabera ulertuko da (bereziki, Enplegatu publikoaren oinarrizko estatutuaren testu bateginaren 2. artikuluaren arabera).

Lehiaketa faseko gehieneko puntuazioa

Fase honetan gehienez ere 40,00 (berrogei) puntu eskuratu ahalko dira.

C) *Euskararen ezagutza egiaztatzea*

Derrigortasun data igarota ez egoteagatik baldintzatzat ez duten lanpostuetan bakarrik baloratuko da euskararen ezagutza, baremo honen arabera:

— 1. HE: 5,00 puntu.

— 2. HE: 10,00 puntu.

— 3. HE: 15,00 puntu.

**5. Lan poltsa**

Deialdi honek lan poltsa bat sortuko du. Hasiera batean bertan egongo dira lanposturik eskuratu ez duten eta puntuaziorik onena lortu duten 20 hautagaiak, eta subsidiarioki aplikatuko da Bilbao Ekintzan dagoen eta azken ohiko hautaketa prozesutik sortu zen lan poltsarekiko.

**6. Gaitegia**

*Zati orokorra*

1. gaia: 1978ko Espainiako Konstituzioa. Printzipio orokorrak. Funtsezko eskubideak eta betebeharrak.

2. gaia: Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutua. EAEren eskumenak: esklusiboak, lege garapenekoak eta egikaritzekoak.

3. gaia: Udalerria. Biztanle asko dituzten udalerrietako udal antolamendua (Toki araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen X. titulua).

4. gaia: Bilboko Udalaren antolamendua. Erregelamendu organikoak.

5. gaia: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearena.

6. gaia: 6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa. Funtzionarioen eskubideak eta betebeharrak. Ordainsariak. Diziplina araubidea.

7. gaia: 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizkoa.

8. gaia: 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Lan-arriskuen Prebentzioari buruzkoa.

9. gaia: 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa. Datuak babesteko 2016/679 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentu eta Kontseiluarena, 2016ko apirilaren 27koa, Datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituena eta 95/46/EE Zuzentaraua (Datuak babesteko Erregelamendu Orokorra) indargabetzen duena.

10. gaia: 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako. Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako Bilboko Udalaren V. Udal Plana.

eek: BAO-2022a237-(II-5480)

11. gaia: Administrazio kontratazioa. Motak: elementuak eta subjektuak, eta kontratu publikoen arrazoia eta xedea. Kontratisten hautaketa sistemak eta kontratazio moduak. Kontratuen formalizazioa.

12. gaia: Giza baliabideen tresna arautzaileak: enpleguko eskaintza publikoa, enplegu planak eta bestelako arrazionalizazio sistemak.

13. gaia: Toki erakundeetako langileak: motak eta araubide juridikoa. Tokiko funtzio publikoa: tokiko funtzionario motak. Langileak antolatzeko tresnak: plantillak eta lanpostuen zerrendak.

14. gaia: Toki erakundeen aurrekontu orokorra. Aurrekontu egitura. Sortzea eta onestea. Aurrekontua luzatzea. Aurrekontua egikaritu eta likidatzea.

15. gaia: Toki erakundeen ordenantzak eta erregelamenduak.

16. gaia: Gorte Nagusiak. Herriaren Defendatzailea. Arartekoa.

17. gaia: Estatuaren eta autonomia erkidegoen artean eskumenak banatzea. Eskumen banaketa Konstituzioan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuan.

18. gaia: Botere Judiziala. Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioa. Justizia Auzitegi Nagusia: antolaketa, esparrua eta osaera.

*Zati espezifikoa*

19. gaia: 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntzen orokorra: Dirulaguntzak itzultzea. Dirulaguntzen finantza kontrola.

20. gaia: Bilboko Udalak eta bere organismo eta zuzenbide publikoko erakundeek deialdiaren bidez dirulaguntzak emateko oinarriak arautzen dituen Ordenantza Orokorra.

21. gaia: 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore publikoko kontratuei buruzkoa: Legearen xedea eta aplikazio esparrua. Kontratu moten mugapena. Araubide harmonizatu lotutako kontratuak. Administrazio kontratuak eta kontratu pribatuak.

22. gaia: Bizkaiko Foru Aldundiaren 4/2013 Foru Dekretua, urtarrilaren 22koa, Fakturazio betebeharrak arautzen dituen erregelamendua onesten duena. Fakturen betekizunak

23. gaia: 10/2003 Foru Araua, abenduaren 2koa, Bizkaiko Lurralde Historikoko toki erakundeen aurrekontuena. Definizioa. Aurrekontuen printzipioak. Aurrekontuen edukia. Aurrekontu orokorren egitura. Sortzea eta onestea.

24. gaia: 10/2003 Foru Araua, abenduaren 2koa, Bizkaiko Lurralde Historikoko toki erakundeen aurrekontuena. Aurrekontu kredituen araubide orokorra eta aldaketen araubidea. Aurrekontuak betearaztea.

25. gaia: Bilboko Udalaren aurrekontu betearazpen araua. Aurrekontua kudeatzea, garatzea eta aplikatzea.

26. gaia: 139/2015 Foru Dekretua, uztailaren 28koa. Toki erakundeen aurrekontu egitura.

27. gaia: 139/2015 Foru Dekretua, uztailaren 28koa. Kontabilitate publikoko plan orokorra, Bizkaiko Lurralde Historikoko toki administrazioari egokitutakoa: Urteko kontuak.

28. gaia: 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu egonkortasun eta finantza jasangarritasunarena: Aplikazio esparrua. Printzipio orokorrak.

29. gaia: 5/2013 Foru Araua, ekainaren 12koa, Bizkaiko toki erakundeen aurrekontu egonkortasun eta finantza jasangarritasunarena.

30. gaia: Kontabilitateko kontzeptuen esparrua. Urteko kontuak. Urteko kontuak sortzeko arauak. Irudi fidela. Kontabilitate printzipioak. Urteko kontuen elementuak. Urteko kontuetako elementuen erregistro irizpideak. Balorazio irizpideak. Orokorrean onartuak dauden kontabilitateko printzipioak eta arauak.

eek: BAO-2022a237-(II-5480)

BIZKAIKO ALDIZKARI OFIZIALA BAO
237. zk. 2022, abenduak 15. Osteguna 11. orr.

ERANSKINA: ESKABIDEA

ANEXO: INSTANCIA

**Onarpen eskabidea / Solicitud de admisión**

**1. Deialdia / Convocatoria**

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Deialdiaren izena / Nombre Convocatoria: | | | | | | |
| Sartzeko sistemak: | Lehiaketa | ☐ | Oposizioa | ☐ | Oposizio-lehiaketa | ☐ |
| Sistemas de acceso: | Concurso | ☐ | Oposición | ☐ | Concurso-oposición | ☐ |
| **Txanda / Turno:** | Askea / Libre | ☐ | | | Barne-sustapena / Promoción interna | ☐ |

**2. Norberaren datuak / Datos personales**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Lehenengo abizena / Primer apellido | Bigarren abizena / Segundo apellido | Izena / Nombre | |
| NAN / AIZ / DNI / NIE: | Naziotasuna / Nacionalidad: | Jaioteguna / Fecha de Nacimiento: | Sexua / Sexo: E / M ☐ G / H ☐ |
| E-posta / Correo electrónico | | | |

* Helbide elektronikoa edo telefono mugikorra ematen duten parte hartzaileek horiek erabiltzeko baimena ematen diote Bilbao.eus OPEri hautatze-prozesuan zehar egin ditzakeen jakinarazpenetarako.

* Los participantes que faciliten una dirección electrónica o teléfono móvil consienten su utilización para las comunicaciones que Bilbao.eus OPE pueda efectuar en el transcurso del proceso selectivo.

| | |
|---|---|
| Herria / País | Lurraldea / Provincia |
| Bizilekua / Localidad | PK / CP |
| Helbidea / Dirección | Ataria, eskailera, solairua, eskua eta atea / Portal, bis, escalera, piso, mano y puerta |
| Telefonoa / Teléfono fijo* | Telefono mugikorra / Teléfono móvil* |

*Es necesario introducir el teléfono fijo o el móvil

| | |
|---|---|
| EGOKITZAPENA/ADAPTACIÓN<br>Bai / Si ☐ Ez/No ☐ | **Azterketa egiteko behar dituzun baldintza bereziak eta kausa argitu/Especifique las adaptaciones para realizar el examen** |

Aukera ezazu oposizio-aldia egiteko nahi duzun hizkuntza
Seleccione el idioma en el que desea hacer la fase de oposición.
Euskara / Euskera ☐ Gaztelania / Castellano ☐

**3.- Betebeharrak / Requisitos**

| |
|---|
| Deialdian eskatutako titulazioa / Titulación exigida en la convocatoria: |
| Deialdian eskatutako beste betekizun batzuk / Otros requisitos exigidos |

eek: BAO-2022a237-(II-5480)

**4. Euskera**

| Profila **egiaztatzen dut** (jarri "X" dagokion lekuan) / **Acredito** el perfil (marcar con una "X" el correspondiente) | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 HE / PL1 | ☐ | 2HE / PL2 | ☐ | 3HE / PL3 | ☐ | 4HE / PL4 | ☐ |

**5. Hizkuntzak / Idiomas**

Profila **egiaztatzen dut** (jarri "X" dagokion lekuan) / **Acredito** el perfil (marcar con una "X" el correspondiente)

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Ingelesa/ Inglés | B1 Maila/ Nivel B1 ☐ | B2 Maila/ Nivel B2 ☐ | C1 Maila/ Nivel C1 ☐ | C2 Maila/ Nivel C2 ☐ |
| Frantsesa/Francés | B1 Maila/ Nivel B1 ☐ | B2 Maila/ Nivel B2 ☐ | C1 Maila/ Nivel C1 ☐ | C2 Maila/ Nivel C2 ☐ |
| Alemana/Alemán | B1 Maila/ Nivel B1 ☐ | B2 Maila/ Nivel B2 ☐ | C1 Maila/ Nivel C1 ☐ | C2 Maila/ Nivel C2 ☐ |
| Besteak /Otros …………………….. | B1 Maila/ Nivel B1 ☐ | B2 Maila/ Nivel B2 ☐ | C1 Maila/ Nivel C1 ☐ | C2 Maila/ Nivel C2 ☐ |
| …………………….. | B1 Maila/ Nivel B1 ☐ | B2 Maila/ Nivel B2 ☐ | C1 Maila/ Nivel C1 ☐ | C2 Maila/ Nivel C2 ☐ |

**6. Kontratazio zerrendetan sarrera / Ingreso en Listas o bolsas de Contratación**

| **Laukietan BAI ala EZ idatzi / Escriba en los recuadros SÍ ó NO:** | |
|---|---|
| Bilbao Ekintza EPELen indarrean dauden Oinarri Orokorren arabera, baimena ematen dut nire datuak Administrazio Publikoen beste erakunde batzuei lagatzeko, lan eskaintzak jasotze aldera.<br><br>Autorizo la cesión, a efectos de recibir ofertas de empleo, de mis datos personales a otras Entidades de las Administraciones Públicas, al amparo de lo establecido en las vigentes Bases Generales de Bilbao Ekintza, E.P.E.L. | BAI/SI ☐<br><br>EZ/NO ☐ |
| Baimena ematen diot Bilbao Ekintza EPELi, bide telematikoen bidez, nire eskabidean aipatutako nortasun, ezgaitasun, titulazio akademiko, ziurtagiri, hizkuntza eskakizun, IT txartel eta gidabaimenen datuak kontsulta eta egiazta ditzan, bere izapidetze administratiborako, hauek eskuragarri dauden heinean. Ez baduzu baimen hau ematen, dagozkion agiriak erantsi beharko dituzu.<br><br>Autorizo a Bilbao Ekintza, E.P.E.L. a consultar y verificar por medios telemáticos los datos de identidad, discapacidad, títulos académicos, certificados, perfiles lingüísticos, IT txartelas y permisos de conducción alegados en la solicitud para su tramitación administrativa, en la medida de la disponibilidad de los mismos. En caso de no dar la autorización, deberá aportar los documentos acreditativos correspondientes. | BAI/SI ☐<br><br>EZ/NO ☐ |
| Baimena ematen diot Bilbao Ekintza EPELi nire helbide elektronikoa eta telefono mugikorra erabiltzeko hautaketa prozesu honetan egin ditzakeen jakinarazpenetan.<br><br>Autorizo la utilización de la dirección electrónica y teléfono móvil aportados, para su utilización en las comunicaciones que Bilbao Ekintza, E.P.E.L. pueda efectuar en el transcurso del presente proceso selectivo. | BAI/SI ☐<br><br>EZ/NO ☐ |

eek: BAO-2022a237-(II-5480)

**7.- Merituak / Méritos**

| Merituen zerrenda / Relación de méritos | |
|---|---|
| **1** | |
| **2** | |
| **3** | |
| **4** | |
| **5** | |
| **6** | |
| **7** | |
| **8** | |
| **9** | |
| **10** | |
| **11** | |
| **12** | |
| **13** | |
| **14** | |
| **15** | |

Leku zabalagoa behar izanez gero, datu edota informazio gehigarrirako, eskabideari gehitutako eranskin batean egin beharko da.

En caso de necesitar más espacio para incluir datos o información adicional, deberá hacerse incorporando un anexo a la solicitud.

**Lege-informazioa / Información legal**

Behean sinatu duen pertsonak ESKATU DU hautaketa-prozesu honetan onartua izan dadin, eta, gainera, adierazi du, bere erantzukizunpean, eskaera honetan jasotako datuak benetakoak direla. Eskaera, hain zuen ere, bertan jasotako jarraibideei jarraikiz bete du. Bestalde, adierazi du deialdia arautzen duten oinarri orokorretan eta oinarri espezifikoetan eskatzen diren baldintzak betetzen dituela, osasun-egoerari dagokionak barne hartuta, eta, hala eskatzen zaionean, eskaeran jasotako datu guztiak dokumentu bidez frogatzeko prest dago.

La persona abajo firmante SOLICITA su admisión en el presente proceso selectivo y declara, bajo su responsabilidad, que son ciertos los datos consignados en esta solicitud, que ha cumplimentado la misma de conformidad con las instrucciones contenidas en la misma y que reúne las condiciones exigidas en las Bases Generales y en las Bases Específicas que rigen la convocatoria, incluidas las que se refieren a mi estado de salud, comprometiéndose a probar documentalmente todos los datos que figuran en la solicitud cuando le sean requeridos.

**Jarri "X" laukitxoan / Marque con una "X" en el recuadro**

☐ ZIN EGITEN DUT EDO AGINDU EGITEN DUT / DECLARO BAJO JURAMENTO O PROMETO

Izangaiek emandako datuak Bilbao Ekintza EPELek tratatuko ditu, PERTSONALA izeneko tratamenduaren bidez. Organo arduraduna Bilbao Ekintzaren Giza Baliabideen Arloa da. Interesdunek datuak ikusi, haiek zuzendu, ezabatu eta haien eramangarritasuna, mugaketa edo aurka egiteko eskubideak erabili ahal izango dituzte, eta horretarako, idatzizko jakinarazpena bidali beharko dute helbide honetara: Bilbao Ekintza, EPEL. Norentzat: Sail Juridikoa. Nafarroa kalea, 5. 2. solairua. 48001 Bilbo.

Los datos facilitados por las personas aspirantes serán tratados por Bilbao Ekintza, E.P.E.L bajo el tratamiento denominado PERSONAL, cuyo órgano responsable es el Área de Recursos Humanos de Bilbao Ekintza. Las personas interesadas podrán ejercitar los derechos de acceso, rectificación, supresión de datos y la portabilidad, limitación u oposición, enviando una comunicación escrita a la siguiente dirección: Bilbao Ekintza, E.P.E.L. Att. Departamento Juridico. c/ Navarra, 5. 2ª planta. 48001 Bilbao.

tokia / lugar urtea / año hilabetea / mes eguna / día

Sinadura / Firma

**BILBAO EKINTZA E.P.E.L. Zuzendari Nagusia / Dirección General Bilbao Ekintza E.P.E.L.**

eek: BAO-2022a237-(II-5480)

ERANSKINA

**EGONKORTZEKO PROZESU BEREZIAREN DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK, JABETZAN ETA LEHIAKETA-OPOSIZIO SISTEMAREN BIDEZ HORNITZEKO INBERTSIOAK ERAKARTZEKO TEKNIKARIAREN LANPOSTU BAT**

## 1. Deialdiko lanpostua

Honakoekin bat etorriz, inbertsioak erakartzeko teknikariaren lanpostu baterako deialdia egin da:

— Kategoria: A teknikaria.

— Barne sustapena: 1.

— Hizkuntza eskakizuna: 3. HE.

— Hautaketa sistema: lehiaketa-oposizioa.

Barne sustapena egongo dela dioen aipamenari dagokionez, ulertu behar da deialdietan aldi berean egingo dela txanda askeko eta barne sustapeneko prozesua. Hori horrela, prozesua gainditu duten bi txandetako izangaiak prozesu berean baldin badaude, barne sustapeneko prozesuaren bitartez parte hartu dutenek izango dute lanpostua eskuratzeko lehentasuna. Barne sustapeneko txandan izangairik ez badago, txanda askeko prozesutik baino ez da jarraituko prozesuarekin.

Lanpostuen izendapenak eta kategoriaren identifikazioa lanpostuen gaur egungo ezaugarriak kontuan hartuz erabiliko dira. Bilbao Ekintzaren lanpostuen katalogoa prestatzen ari garenez, baliteke horren ondoriozko egokitzapenak egin behar izatea guztiz prest dagoenean.

## 2. Parte hartzeko baldintzak

2.1. Plazak lortu nahi dituztenek egonkortzeko oinarri orokorretako 5.1 atalean oro har ezarritako betekizunak bete beharko dituzte.

## 3. Deitutako lanpostuari dagozkion betekizun espezifikoak

3.1. Laneratzeko titulazioa: Unibertsitateko gradu edo lizentziatura titulua izatea ikasketa hauetan: Zuzenbideko, Enpresa Administrazio eta Zuzendaritzako, Ekonomiako, Enpresa Ikasketetako, Nazioarteko Harremanetako, Gizarte Zientzietako edo antzekoetako graduko unibertsitate titulua edo baliokidea.

3.2. Euskara: Lanpostu honetarako betekizuna da euskararen 3. hizkuntza eskakizuna.

## 4. Hautaketa prozesua

Hautaketa sistema lehiaketa-oposizioa izango da:

A) *Oposizio fasea*

Oposizio fasean hiru ariketa egingo dira, eta hirurak nahitaezkoak eta baztertzaileak izango dira.

Lehenengo ariketa: nahitaezkoa eta baztertzailea

Bi zati izango ditu eta egun berean elkarren segidan egingo dira. Gainera, epaimahaiak atseden hartzeko denbora bat utzi ahal izango die hautagaiei zati bien artean.

Lehenengo zatian test motako 60 galderadun galdetegiari erantzun beharko diote hautagaiek idatziz. Galderak epaimahaiak aukeratuko ditu aurretiaz https://ope.bilbao.eus udalaren web orrian argitaratutako galdera multzotik. Bakarrik 50 izango dira ebaluagarriak eta 10 erreserbakoak izango dira. Lau erantzun posible izango dituzte eta bakarra izango da zuzena, eta erantsitako programako zati orokorreko (1etik 18ra arteko gaiak) arloetan oinarrituta egongo dira. Galderei erantzun beharko zaie epaimahaiak proba hasi aurretik esango duen gehieneko denboran.

Azken 10 galderak erreserba galderak dira eta bakarrik kontuan hartuko dira 50 galderetako bat ezeztatzen bada.

eek: BAO-2022a237-(II-5480)

Zati honen kalifikazioa 0,00 (zero) eta 24,00 (hogeita lau) puntu artekoa izango da. Zati honetan, erantzun zuzen bakoitzak 1,00 (bat) puntu jasoko ditu eta erantzun oker bakoitzeko -0,33 (hogeita hamahiru ehunen) puntu kenduko dira. Horrela, lor daitekeen gehieneko puntuazio zuzena 50,00 (berrogeita hamar) puntukoa izango da, eta azken puntuazioko 24,00 (hogeita lau) puntuekiko baliokideak izango dira.

Erantzun gabeko galderek eta erantzun bikoitzek ez dute zigorrik jasoko.

Bigarren zatian idatziz 2 gai garatuko dituzte hautagaiek. Epaimahaiak ausaz 6 gai aterako ditu eta horietatik garatzeko biak hautatuko dituzte, eta gaiak erantsitako gaitegiko zati espezifikokoak izango dira.

Bi gaiak 3 orduan garatu beharko dira gehienez ere.

Ariketa honetan baloratuko dira unibertsitateko prestakuntza orokorra, ideiak argiak izatea eta antolatuta egotea, idatziz adierazteko erraztasuna, hautagaien ekarpen pertsonalak eta laburtzeko gaitasuna.

Ariketaren zati hori egin aurretik, epaimahaiak zuzenketa irizpideak eta puntuazio modua jakinaraziko ditu.

Bigarren zatiak 0,00 (zero) eta 16,00 (hamasei) puntu artean izango ditu, eta gutxienez 6,40 puntu eskuratu beharko dira.

Ariketa horrek 0,00 (zero) eta 40,00 (berrogei) puntu artean izango ditu, eta zuzenean kanporatuko dira gutxienez 16,00 (hamasei) puntu eskuratzen ez dituzten hautagaiak, baldin eta lehen ariketako bigarren zatian gutxienez 6,40 puntu eskuratzen badituzte.

Bigarren ariketa: nahitaezkoa eta baztertzailea

Epaimahaiak ariketa egin baino lehen proposatuko dituen bi gaien artean aukeratutako kasu praktiko bat ebatzi beharko da gehienez ere 2 orduan.

Ariketa honetan honako hauek baloratuko dira funtsean: arrazoitzeko gaitasuna, antolaketa, planteatzeko eta ondorioak formulatzeko sistematika eta araudi aplikagarria ezagutzea eta behar bezala interpretatzea.

Ariketa hau egin aurretik, epaimahaiak zuzenketa irizpideak eta puntuazio modua jakinaraziko ditu.

Ariketa honek 0,00 (zero) eta 20,00 (hogei) puntu artean izango ditu, eta zuzenean kanporatuko dira gutxienez 8,00 (zortzi) puntu lortzen ez dituzten hautagaiak.

Hirugarren ariketa (euskararen proba)

Nahitaezkoa eta kanporatzailea izango da.

Euskararen 3. hizkuntza eskakizuna egiaztatzean datza, epaimahaiak erabakitako moduan, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen jarraibideen arabera eta Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 99.1. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

Ez dute ariketa hau egin beharko ariketa egin baino lehen HAEEren 3. hizkuntza eskakizunaren ziurtagiria edo Hizkuntzen Erreferentziarako Europako Esparru Bateratuko C-1 mailarekin parekatu daitezkeen euskara ezagutzaren ziurtagiri edo titulu ofizialak dituztenek eta hizkuntza profila Euskararen Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan egiaztatuta dutenek. Horretarako, parte-hartzaileak ez du aurkaratu beharko dagokion erregistroan ziurtagiriak egiaztatzea. Egiaztapenaren aurka agertzen diren hautagaiek epaimahaiak eskatutakoan beharrezko dokumentazioa entregatu beharko dute.

Apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuak -euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara maila hizkuntza tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuesteko dena- xedatutakoaren babesean hizkuntza eskakizuna egiaztatu nahi dutenek dagokion ziurtagiri akademikoa aurkeztu beharko dute, baldin eta ariketa hau egin aurretik egiaztatu baldin badute.

Ariketa hau gai edo ez gai moduan kalifikatuko da nahitaezko 3. hizkuntza eskakizuna duten lanpostuetako hautagaien kasuan.

eek: BAO-2022a237-(II-5480)

Oposizio faseko gehieneko puntuazioa

Fase honetan gehienez 60,00 (hirurogei) puntu eskuratu ahalko dira.

B) *Lehiaketa fasea*

Merezimendu guztiak eskaeran/erantzukizunpeko adierazpenean aipatu beharko dira berau aurkezteko epearen barnean.

Merezimenduak eskuratzeko gehieneko epea eskariak/erantzukizunpeko adierazpena aurkezteko azken eguna izango da.

Eskaera/erantzukizunpeko adierazpena zein egunetan aurkeztu den albo batera utzita, merezimenduak zenbatuko dira eskaerak/erantzukizunpeko adierazpenak aurkezteko azken egunera arte.

Prozesua kalifikatzeko baremo honi jarraituta batuko dira esleitutako puntuak:

a) Esperientzia orokorra

Administrazio publikoetako plazetan edo postuetan emandako zerbitzuak baloratuko dira, baldin eta horien laneratzeko betekizuna bat badator oinarri hauetako 3.1 ataleko aurreikuspenekin. Gehienez ere 20,00 (hogei) puntu eskuratu ahalko dira eta 2,86 (bi koma laurogeita sei) puntu jasoko dira lan egindako urte bakoitzeko edo sei hilabete baino gehiagoko aldi bakoitzeko.

b) Esperientzia espezifikoa

Esperientzia orokorraren baloraziotik bereizita eta modu osagarrian baloratuko dira Bilbao Ekintzako inbertsioak erakartzeko teknikariaren lanpostuetako A teknikariaren kategorian emandako zerbitzuak graduko unibertsitate titulazioarekin edo baliokidearekin. Gehienez ere 20,00 (hogei) puntu eskuratu ahalko dira eta lan egindako urtebete edo sei hilabete baino gehiagoko aldi bakoitzeko 2,86 (bi koma laurogeita sei) puntu eskuratuko dira 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera zenbatzen hasita.

Prozesu hauek arautzen dituzten oinarri orokorrekin bat etorriz, administrazio publikoen kontzeptua indarreko araudiak esandakoaren arabera ulertuko da (bereziki, Enplegatu publikoaren oinarrizko estatutuaren testu bateginaren 2. artikuluaren arabera).

Lehiaketa faseko gehieneko puntuazioa

Fase honetan gehienez ere 40,00 (berrogei) puntu eskuratu ahalko dira.

**5. Lan poltsa**

Deialdi honek lan poltsa bat sortuko du. Hasiera batean bertan egongo dira lanposturik eskuratu ez duten eta puntuaziorik onena lortu duten 20 hautagaiak, eta subsidiarioki aplikatuko da Bilbao Ekintzan dagoen eta azken ohiko hautaketa prozesutik sortu zen lan poltsarekiko.

**6. Gaitegia**

*Zati orokorra*

1. gaia: 1978ko Espainiako Konstituzioa. Printzipio orokorrak. Funtsezko eskubideak eta betebeharrak.

2. gaia: Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutua. Euskadiko eskumenak: esklusiboak, lege garapenekoak eta egikaritzekoak.

3. gaia: Udalerria. Biztanle asko dituzten udalerrietako udal antolamendua (Toki araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen X. titulua).

4. gaia: Bilboko Udalaren antolamendua. Erregelamendu organikoak.

5. gaia: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearena.

6. gaia: 6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal funtzio publikoari buruzkoa. Funtzionarioen eskubideak eta betebeharrak. Ordainsariak. Diziplina araubidea.

eek: BAO-2022a237-(II-5480)

7. gaia: 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizkoa.

8. gaia: 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Lan-arriskuen prebentzioari buruzkoa.

9. gaia: 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa. Datuak babesteko 2016/679 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentu eta Kontseiluarena, 2016ko apirilaren 27koa, Datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituena eta 95/46/EE Zuzentaraua (Datuak babesteko Erregelamendu Orokorra) indargabetzen duena.

10. gaia: 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako. Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako Bilboko Udalaren V. Udal Plana.

11. gaia: Administrazio kontratazioa. Motak: elementuak eta subjektuak, kontratu publikoen arrazoia eta xedea. Kontratisten hautaketa sistemak eta kontratazio modua. Kontratuen formalizazioa.

12. gaia: Giza baliabideak arautzeko tresnak: enpleguko eskaintza publikoa, enplegu planak eta bestelako arrazionalizazio sistemak.

13. gaia: Toki erakundeetako langileak: motak eta araubide juridikoa. Tokiko funtzio publikoa: tokiko funtzionario motak. Langileak antolatzeko tresnak: plantillak eta lanpostuen zerrendak.

14. gaia: Toki erakundeen aurrekontu orokorra. Aurrekontu egitura. Sortzea eta onestea. Aurrekontua luzatzea. Aurrekontua egikaritu eta likidatzea.

15. gaia: Toki erakundeen ordenantzak eta erregelamenduak.

16. gaia: Gorte Nagusiak. Herriaren Defendatzailea. Arartekoa.

17. gaia: Estatuaren eta autonomia erkidegoen artean eskumenak banatzea. Eskumen banaketa Konstituzioan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuan.

18. gaia: Botere Judiziala. Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioa. Justizia Auzitegi Nagusia: antolaketa, esparrua eta osaera.

19. gaia: Atzerriko Inbertsio Zuzenaren Esparrua (aurrerantzean, AIZ) esparruaren definizioa: AIZren kontzeptu eta definizio nagusiak. Erakunde bereziak. AIZren kalitatearen adierazleak. AIZren kalitatearen adierazleak. Ikuspegi orokorra. AIZren ezaugarriak: ELGAren ekimen berria. Nola lotzen da AIZ produktibitatearekin eta berrikuntzarekin. Nola lotzen da AIZ enpleguarekin eta enpleguaren kalitatearekin. Nola lotzen da AIZ kualifikazioekin. Nola lotzen da AIZ genero berdintasunarekin. Nola lotzen da AIZ karbono aztarnarekin.

20. gaia: Inbertsiorako esparru politikoa: Politika eta praktika horizontalak. Inbertsio politika. Inbertsioaren promozioa eta ematea. Merkataritza politika. Lehiaren politika. Zerga politika. Gobernu korporatiboa. Enpresa jokaera arduratsua prestatzeko politikak. Inbertsiorako giza baliabideak garatzea. Inbertsioa azpiegituretan. Inbertsioaren finantzaketa. Gobernantza publikoa. Hazkunde berderako inbertsio esparrua.

21. gaia: Kanpo inbertsioei eta aldaketa kontrolari buruzko araudia: Atzerriko inbertsioei buruzko legeria. Atzerriko inbertsioak – Ezaugarriak; kanpoko inbertsioen jarraipena; liberalizazio erregimena etetea; kontrol aldaketari eta kapital mugimenduei buruzko araudia; Espainiako Bankuan kanpoarekin egindako transakzioak deklaratzea; zenbait ordainketa bitartekoren eta mugimenduen inportazioa eta esportazioa lurralde nazionalean: Covid-19ari erantzuteko ez ohiko neurriak.

22. gaia: Sozietateen arloko legeria: Aplikatzekoa den legeria. Merkataritza sozietate motak. Merkataritza sozietate moten gaineko erantzukizuna. SA eta SL sozietateen ezaugarri nagusiak. Europako Sozietate Anonimoa (SE). Sozietate Mugatua enpresa berria. Sozietate Profesionala (SP). Pertsona Bakarreko Sozietateak. Sukurtsalak. Ordezkaritza bulegoa.

23. gaia: Enpresako estrategia lehiakorrak eta korporatiboak. Estrategia lehiakorrak: Inguru orokorraren analisia. Inguru lehiakorraren analisia: Porterren bost indarren ere-

eek: BAO-2022a237-(II-5480)

dua. Porterren estrategia generikoak. Abantaila iturriak kostuetan. Ezberdintzea: izaera eta analisia. Nitxoen ikuspegia. Baliabideetan eta gaitasunetan oinarritutako estrategia. Balio katea. Plangintza estrategikoa. Enpresaren estrategia korporatiboa: Enpresaren bizi zikloa. Barne hazkundea. Kanpo hazkundea: fusioak eta eskuratzeak. Muga bertikalak: integrazio bertikala eta kanpora ateratzeko erabakiak. Aliantza estrategikoak. Muga horizontalak: dibertsifikazioa. Enpresa dibertsifikatuaren kudeaketa.

24. gaia: Espainiako eta EAEko ekintzailetza ekosistema. Espainiako start-upen inkubagailuak. Negozio azeleratzaileak. Ekintzaileentzako finantzaketa. Crowdfunding-a. Venture Capital. Sektore publikoaren finantzaketa gastuak. Corporate Venture. Start-upentzako ekimenak

25. gaia: Bilbon, Bizkaian, EAEn edo Espainian kokatuko diren enpresentzako laguntzak eta pizgarriak: Laguntzak ETE-ei. Prestakuntza eta enplegurako laguntzak. Inbertsiorako pizgarriak; Sozietateen gaineko zergan inbertsiorako zerga pizgarriak. Kontratatziorako laguntzak. Eusko Jaurlaritzaren ekonomia berraktibatzeko programak

26. gaia: EBrako agenda estrategiko berria (2019-2024). Espezializazio adimentsurako eta jasangarritasunerako estrategiak.

27. gaia: EAEren lurralde lehiakortasuna. EAEren egoera. Lehiakortasun esparru berri bat. Lehiakortasun palanken azterketa. Lehiakortasuna trantsizioen testuinguruan.

28. gaia: Euskadi Basque Country 2030 Agenda. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Plana Euskadi 2030 EAEko I+G+b estrategia Europan (2021-2030). 2021-2024 urteetako industria garapen eta nazioartekotze plana EAEko ekintzailetza jarduerari laguntzeko erakunde arteko plana.

29. gaia: Bilboko adierazle sozioekonomiko nagusiak. Biztanleria eta demografia: Egitura orokorra eta bilakaera. Ekonomia eta enpresa: Bilboko sektore ekonomiko nagusiak. Merkataritza: Ikuspegi orokorra eta joerak.

30. gaia: Bilboko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra. Zorrotzaurreko Plan Berezia. Proiektu estrategikoak eta Bilboko aukeren espazioa: Abandoko geltokia. Zorrotzako muturra. Elorrieta.

eek: BAO-2022a237-(II-5480)

ERANSKINA: ESKABIDEA

ANEXO: INSTANCIA

**Onarpen eskabidea / Solicitud de admisión**

**1. Deialdia / Convocatoria**

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Deialdiaren izena / Nombre Convocatoria: | | | | | | |
| Sartzeko sistemak: | Lehiaketa | ☐ | Oposizioa | ☐ | Oposizio-lehiaketa | ☐ |
| Sistemas de acceso: | Concurso | ☐ | Oposición | ☐ | Concurso-oposición | ☐ |
| **Txanda / Turno:** | Askea / Libre | ☐ | | | Barne-sustapena / Promoción interna | ☐ |

**2. Norberaren datuak / Datos personales**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Lehenengo abizena / Primer apellido | Bigarren abizena / Segundo apellido | Izena / Nombre | |
| NAN / AIZ / DNI / NIE: | Naziotasuna / Nacionalidad: | Jaioteguna / Fecha de Nacimiento: | Sexua / Sexo: E / M ☐ G / H ☐ |
| E-posta / Correo electrónico | | | |

* Helbide elektronikoa edo telefono mugikorra ematen duten parte hartzaileek horiek erabiltzeko baimena ematen diote Bilbao.eus OPEri hautatze-prozesuan zehar egin ditzakeen jakinarazpenetarako.

* Los participantes que faciliten una dirección electrónica o teléfono móvil consienten su utilización para las comunicaciones que Bilbao.eus OPE pueda efectuar en el transcurso del proceso selectivo.

| | |
|---|---|
| Herria / País | Lurraldea / Provincia |
| Bizilekua / Localidad | PK / CP |
| Helbidea / Dirección | Ataria, eskailera, solairua, eskua eta atea / Portal, bis, escalera, piso, mano y puerta |
| Telefonoa / Teléfono fijo* | Telefono mugikorra / Teléfono móvil* |

*Es necesario introducir el teléfono fijo o el móvil

| | |
|---|---|
| EGOKITZAPENA/ADAPTACIÓN<br>Bai / Si ☐ Ez/No ☐ | **Azterketa egiteko behar dituzun baldintza bereziak eta kausa argitu/Especifique las adaptaciones para realizar el examen** |

Aukera ezazu oposizio-aldia egiteko nahi duzun hizkuntza
Seleccione el idioma en el que desea hacer la fase de oposición.
Euskara / Euskera ☐ Gaztelania / Castellano ☐

**3.- Betebeharrak / Requisitos**

| |
|---|
| Deialdian eskatutako titulazioa / Titulación exigida en la convocatoria: |
| Deialdian eskatutako beste betekizun batzuk / Otros requisitos exigidos |

eek: BAO-2022a237-(II-5480)

**4. Euskera**

| Profila **egiaztatzen dut** (jarri "X" dagokion lekuan) / **Acredito** el perfil (marcar con una "X" el correspondiente) | | | |
|---|---|---|---|
| 1 HE / PL1 ☐ | 2HE / PL2 ☐ | 3HE / PL3 ☐ | 4HE / PL4 ☐ |

**5. Hizkuntzak / Idiomas**

Profila **egiaztatzen dut** (jarri "X" dagokion lekuan) / **Acredito** el perfil (marcar con una "X" el correspondiente)

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Ingelesa/ Inglés | B1 Maila/ Nivel B1 ☐ | B2 Maila/ Nivel B2 ☐ | C1 Maila/ Nivel C1 ☐ | C2 Maila/ Nivel C2 ☐ |
| Frantsesa/Francés | B1 Maila/ Nivel B1 ☐ | B2 Maila/ Nivel B2 ☐ | C1 Maila/ Nivel C1 ☐ | C2 Maila/ Nivel C2 ☐ |
| Alemana/Alemán | B1 Maila/ Nivel B1 ☐ | B2 Maila/ Nivel B2 ☐ | C1 Maila/ Nivel C1 ☐ | C2 Maila/ Nivel C2 ☐ |
| Besteak /Otros …………………….. | B1 Maila/ Nivel B1 ☐ | B2 Maila/ Nivel B2 ☐ | C1 Maila/ Nivel C1 ☐ | C2 Maila/ Nivel C2 ☐ |
| …………………….. | B1 Maila/ Nivel B1 ☐ | B2 Maila/ Nivel B2 ☐ | C1 Maila/ Nivel C1 ☐ | C2 Maila/ Nivel C2 ☐ |

**6. Kontratazio zerrendetan sarrera / Ingreso en Listas o bolsas de Contratación**

| **Laukietan BAI ala EZ idatzi / Escriba en los recuadros SÍ ó NO:** | |
|---|---|
| Bilbao Ekintza EPELen indarrean dauden Oinarri Orokorren arabera, baimena ematen dut nire datuak Administrazio Publikoen beste erakunde batzuei lagatzeko, lan eskaintzak jasotze aldera.<br><br>Autorizo la cesión, a efectos de recibir ofertas de empleo, de mis datos personales a otras Entidades de las Administraciones Públicas, al amparo de lo establecido en las vigentes Bases Generales de Bilbao Ekintza, E.P.E.L. | BAI/SI ☐<br><br>EZ/NO ☐ |
| Baimena ematen diot Bilbao Ekintza EPELi, bide telematikoen bidez, nire eskabidean aipatutako nortasun, ezgaitasun, titulazio akademiko, ziurtagiri, hizkuntza eskakizun, IT txartel eta gidabaimenen datuak kontsulta eta egiazta ditzan, bere izapidetze administratiborako, hauek eskuragarri dauden heinean. Ez baduzu baimen hau ematen, dagozkion agiriak erantsi beharko dituzu.<br><br>Autorizo a Bilbao Ekintza, E.P.E.L. a consultar y verificar por medios telemáticos los datos de identidad, discapacidad, títulos académicos, certificados, perfiles lingüísticos, IT txartelas y permisos de conducción alegados en la solicitud para su tramitación administrativa, en la medida de la disponibilidad de los mismos. En caso de no dar la autorización, deberá aportar los documentos acreditativos correspondientes. | BAI/SI ☐<br><br>EZ/NO ☐ |
| Baimena ematen diot Bilbao Ekintza EPELi nire helbide elektronikoa eta telefono mugikorra erabiltzeko hautaketa prozesu honetan egin ditzakeen jakinarazpenetan.<br><br>Autorizo la utilización de la dirección electrónica y teléfono móvil aportados, para su utilización en las comunicaciones que Bilbao Ekintza, E.P.E.L. pueda efectuar en el transcurso del presente proceso selectivo. | BAI/SI ☐<br><br>EZ/NO ☐ |

eek: BAO-2022a237-(II-5480)

**7.- Merituak / Méritos**

| Merituen zerrenda / Relación de méritos | |
|---|---|
| **1** | |
| **2** | |
| **3** | |
| **4** | |
| **5** | |
| **6** | |
| **7** | |
| **8** | |
| **9** | |
| **10** | |
| **11** | |
| **12** | |
| **13** | |
| **14** | |
| **15** | |

Leku zabalagoa behar izanez gero, datu edota informazio gehigarrirako, eskabideari gehitutako eranskin batean egin beharko da.

En caso de necesitar más espacio para incluir datos o información adicional, deberá hacerse incorporando un anexo a la solicitud.

**Lege-informazioa / Información legal**

Behean sinatu duen pertsonak ESKATU DU hautaketa-prozesu honetan onartua izan dadin, eta, gainera, adierazi du, bere erantzukizunpean, eskaera honetan jasotako datuak benetakoak direla. Eskaera, hain zuen ere, bertan jasotako jarraibideei jarraikiz bete du. Bestalde, adierazi du deialdia arautzen duten oinarri orokorretan eta oinarri espezifikoetan eskatzen diren baldintzak betetzen dituela, osasun-egoerari dagokionak barne hartuta, eta, hala eskatzen zaionean, eskaeran jasotako datu guztiak dokumentu bidez frogatzeko prest dago.

La persona abajo firmante SOLICITA su admisión en el presente proceso selectivo y declara, bajo su responsabilidad, que son ciertos los datos consignados en esta solicitud, que ha cumplimentado la misma de conformidad con las instrucciones contenidas en la misma y que reúne las condiciones exigidas en las Bases Generales y en las Bases Específicas que rigen la convocatoria, incluidas las que se refieren a mi estado de salud, comprometiéndose a probar documentalmente todos los datos que figuran en la solicitud cuando le sean requeridos.

**Jarri "X" laukitxoan / Marque con una "X" en el recuadro**

☐ ZIN EGITEN DUT EDO AGINDU EGITEN DUT / DECLARO BAJO JURAMENTO O PROMETO

Izangaiek emandako datuak Bilbao Ekintza EPELek tratatuko ditu, PERTSONALA izeneko tratamenduaren bidez. Organo arduraduna Bilbao Ekintzaren Giza Baliabideen Arloa da. Interesdunek datuak ikusi, haiek zuzendu, ezabatu eta haien eramangarritasuna, mugaketa edo aurka egiteko eskubideak erabili ahal izango dituzte, eta horretarako, idatzizko jakinarazpena bidali beharko dute helbide honetara: Bilbao Ekintza, EPEL. Norentzat: Sail Juridikoa. Nafarroa kalea, 5. 2. solairua. 48001 Bilbo.

Los datos facilitados por las personas aspirantes serán tratados por Bilbao Ekintza, E.P.E.L bajo el tratamiento denominado PERSONAL, cuyo órgano responsable es el Área de Recursos Humanos de Bilbao Ekintza. Las personas interesadas podrán ejercitar los derechos de acceso, rectificación, supresión de datos y la portabilidad, limitación u oposición, enviando una comunicación escrita a la siguiente dirección: Bilbao Ekintza, E.P.E.L. Att. Departamento Juridico. c/ Navarra, 5. 2ª planta. 48001 Bilbao.

tokia / lugar urtea / año hilabetea / mes eguna / día

Sinadura / Firma

**BILBAO EKINTZA E.P.E.L. Zuzendari Nagusia / Dirección General Bilbao Ekintza E.P.E.L.**

eek: BAO-2022a237-(II-5480)

ERANSKINA

**EGONKORTZEKO PROZESU BEREZIAREN DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK, JABETZAN ETA LEHIAKETA-OPOSIZIO SISTEMAREN BIDEZ HORNITZEKO ZUZENBIDEKO ETA KONTRATAZIOKO TEKNIKARIAREN LANPOSTU BAT**

## 1. Deialdiko lanpostua

Honakoekin bat etorriz, zuzenbideko eta kontratazioko teknikariaren lanpostu baterako deialdia egin da:

— Kategoria: A teknikaria.

— Barne sustapena: 1.

— Hizkuntza eskakizuna: 3. HE.

— Hautaketa sistema: lehiaketa-oposizioa.

Barne sustapena egongo dela dioen aipamenari dagokionez, ulertu behar da deialdietan aldi berean egingo dela txanda askeko eta barne sustapeneko prozesua. Hori horrela, prozesua gainditu duten bi txandetako izangaiak prozesu berean baldin badaude, barne sustapeneko prozesuaren bitartez parte hartu dutenek izango dute lanpostua eskuratzeko lehentasuna. Barne sustapeneko txandan izangairik ez badago, txanda askeko prozesutik baino ez da jarraituko prozesuarekin.

Lanpostuen izendapenak eta kategoriaren identifikazioa lanpostuen gaur egungo ezaugarriak kontuan hartuz erabiliko dira. Bilbao Ekintzaren lanpostuen katalogoa prestatzen ari garenez, baliteke horren ondoriozko egokitzapenak egin behar izatea guztiz prest dagoenean.

## 2. Parte hartzeko baldintzak

2.1. Plazak lortu nahi dituztenek egonkortzeko oinarri orokorretako 5.1 atalean oro har ezarritako betekizunak bete beharko dituzte.

## 3. Deitutako lanpostuari dagozkion betekizun espezifikoak

3.1. Laneratzeko titulazioa: Unibertsitateko gradu edo lizentziatura titulua izatea ikasketa hauetan: Zuzenbidea edo baliokidea.

3.2. Euskara: Lanpostu honetarako betekizuna da euskararen 3. hizkuntza eskakizuna izatea.

## 4. Hautaketa prozesua

Hautaketa sistema lehiaketa-oposizioa izango da:

### A) *Oposizio fasea*

Oposizio fasean hiru ariketa egingo dira, eta hirurak nahitaezkoak eta baztertzaileak izango dira.

Lehenengo ariketa: nahitaezkoa eta baztertzailea

Bi zati izango ditu eta egun berean elkarren segidan egingo dira. Gainera, epaimahaiak atseden hartzeko denbora bat utzi ahal izango die hautagaiei zati bien artean.

Lehenengo zatian test motako 60 galderadun galdetegiari erantzun beharko zaio idatziz. Galderak epaimahaiak aukeratuko ditu aurretiaz https://ope.bilbao.eus udalaren web orrian argitaratutako galdera multzotik. Bakarrik 50 izango dira ebaluagarriak eta 10 erreserbakoak izango dira. Lau erantzun posible izango dituzte eta bakarra izango da zuzena, eta erantsitako programako zati orokorreko (1etik 18ra arteko gaiak) arloetan oinarrituta egongo dira. Galderei erantzun beharko zaie epaimahaiak proba hasi aurretik esango duen gehieneko denboran.

Azken 10 galderak erreserba galderak dira eta bakarrik kontuan hartuko dira 50 galderetako bat ezeztatzen bada.

Zati horren kalifikazioa 0,00 (zero) eta 24,00 (hogeita lau) puntu artekoa izango da. Zati honetan, erantzun zuzen bakoitzak 1,00 (bat) puntu jasoko ditu eta erantzun oker

eek: BAO-2022a237-(II-5480)

bakoitzeko -0,33 (hogeita hamahiru ehunen) puntu kenduko dira. Horrela, lor daitekeen gehieneko puntuazio zuzena 50,00 (berrogeita hamar) puntukoa izango da, eta azken puntuazioko 24,00 (hogeita lau) puntuekiko baliokideak izango dira.

Erantzun gabeko galderek eta erantzun bikoitzek ez dute zigorrik jasoko.

Bigarren zatian idatziz 2 gai garatuko dituzte hautagaiek. Epaimahaiak ausaz 6 gai aterako ditu eta horietatik garatzeko biak hautatuko dituzte, eta gaiak erantsitako gaitegiko zati espezifikokoak izango dira.

Bi gaiak 3 orduan garatu beharko dira gehienez ere.

Ariketa honetan baloratuko dira unibertsitateko prestakuntza orokorra, ideiak argiak izatea eta antolatuta egotea, idatziz adierazteko erraztasuna, hautagaien ekarpen pertsonalak eta laburtzeko gaitasuna.

Ariketaren zati hori egin aurretik, epaimahaiak zuzenketa irizpideak eta puntuazio modua jakinaraziko ditu.

Bigarren zatiak 0,00 (zero) eta 16,00 (hamasei) puntu artean izango ditu, eta gutxienez 6,40 puntu eskuratu beharko dira.

Ariketa horrek 0,00 (zero) eta 40,00 (berrogei) puntu artean izango ditu, eta zuzenean kanporatuko dira gutxienez 16,00 (hamasei) puntu eskuratzen ez dituzten hautagaiak, baldin eta lehen ariketako bigarren zatian gutxienez 6,40 puntu eskuratzen badituzte.

Bigarren ariketa: nahitaezkoa eta baztertzailea

Epaimahaiak ariketa egin baino lehen proposatuko dituen bi gaien artean aukeratutako kasu praktiko bat ebatzi beharko da gehienez ere 2 orduan.

Ariketa honetan honako hauek baloratuko dira funtsean: arrazoitzeko gaitasuna, antolaketa, planteatzeko eta ondorioak formulatzeko sistematika eta araudi aplikagarria ezagutzea eta behar bezala interpretatzea.

Ariketa hau egin aurretik, epaimahaiak zuzenketa irizpideak eta puntuazio modua jakinaraziko ditu.

Ariketa honek 0,00 (zero) eta 20,00 (hogei) puntu artean izango ditu, eta zuzenean kanporatuko dira gutxienez 8,00 (zortzi) puntu lortzen ez dituzten hautagaiak.

Hirugarren ariketa (euskararen proba)

Nahitaezkoa eta kanporatzailea izango da.

Euskararen 3. hizkuntza eskakizuna egiaztatzean datza, epaimahaiak erabakitako moduan, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen jarraibideen arabera, eta Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 99.1. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

Ez dute ariketa hau egin beharko ariketa egin baino lehen HAEEren 3. hizkuntza eskakizunaren ziurtagiria edo Hizkuntzen Erreferentziarako Europako Esparru Bateratuko C-1 mailarekin parekatu daitezkeen euskara ezagutzaren ziurtagiri edo titulu ofizialak dituztenek eta hizkuntza profila Euskararen Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan egiaztatuta dutenek. Horretarako, parte-hartzaileak ez du aurkaratu beharko dagokion erregistroan ziurtagiriak egiaztatzea. Egiaztapenaren aurka agertzen diren hautagaiek epaimahaiak eskatutakoan beharrezko dokumentazioa entregatu beharko dute.

Apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuak - euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuesteko dena- xedatutakoaren babesean hizkuntza eskakizuna egiaztatu nahi dutenek dagokion ziurtagiri akademikoa aurkeztu beharko dute, baldin eta ariketa hau egin aurretik egiaztatu baldin badute.

Ariketa hau gai edo ez gai moduan kalifikatuko da nahitaezko 3. hizkuntza eskakizuna duten lanpostuei atxikitako lanpostuetako hautagaien kasuan.

Oposizio faseko gehieneko puntuazioa

Fase honetan gehienez 60,00 (hirurogei) puntu eskuratu ahalko dira.

eek: BAO-2022a237-(II-5480)

B) *Lehiaketa fasea*

Merezimendu guztiak eskaeran/erantzukizunpeko adierazpenean aipatu beharko dira berau aurkezteko epearen barnean.

Merezimenduak eskuratzeko gehieneko epea eskariak/erantzukizunpeko adierazpena aurkezteko azken eguna izango da.

Eskaera/erantzukizunpeko adierazpena zein egunetan aurkeztu den albo batera utzita, merezimenduak zenbatuko dira eskaerak/erantzukizunpeko adierazpenak aurkezteko azken egunera arte.

Prozesua kalifikatzeko baremo honi jarraituta batuko dira esleitutako puntuak:

a) Esperientzia orokorra

Administrazio publikoetako plazetan edo postuetan emandako zerbitzuak baloratuko dira, baldin eta horien laneratzeko betekizuna bat badator oinarri hauetako 3.1 ataleko aurreikuspenekin. Gehienez ere 20,00 (hogei) puntu eskuratu ahalko dira eta 2,86 (bi koma laurogeita sei) puntu jasoko dira lan egindako urte bakoitzeko edo sei hilabete baino gehiagoko aldi bakoitzeko.

b) Esperientzia espezifikoa

Esperientzia orokorraren baloraziotik bereizita eta modu osagarrian baloratuko dira Bilbao Ekintzako zuzenbideko eta kontratazioko teknikariaren lanpostuetako A teknikariaren kategorian emandako zerbitzuak graduko unibertsitate titulazioarekin edo baliokidearekin. Gehienez ere 20,00 (hogei) puntu eskuratu ahalko dira eta lan egindako urtebete edo sei hilabete baino gehiagoko aldi bakoitzeko 2,86 (bi koma laurogeita sei) puntu eskuratuko dira 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera zenbatzen hasita.

Prozesu hauek arautzen dituzten oinarri orokorrekin bat etorriz, administrazio publikoen kontzeptua indarreko araudiak esandakoaren arabera ulertuko da (bereziki, Enplegatu publikoaren oinarrizko estatutuaren testu bateginaren 2. artikuluaren arabera).

Lehiaketa faseko gehieneko puntuazioa

Fase honetan gehienez ere 40,00 (berrogei) puntu eskuratu ahalko dira.

**5. Lan poltsa**

Deialdi honek lan poltsa bat sortuko du. Hasiera batean bertan egongo dira lanposturik eskuratu ez duten eta puntuaziorik onena lortu duten 20 hautagaiak, eta subsidiarioki aplikatuko da Bilbao Ekintzan dagoen eta azken ohiko hautaketa prozesutik sortu zen lan poltsarekiko.

**6. Gaitegia**

*Zati orokorra*

1. gaia: 1978ko Espainiako Konstituzioa. Printzipio orokorrak. Funtsezko eskubideak eta betebeharrak.

2. gaia: Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutua. Euskadiko eskumenak: esklusiboak, lege garapenekoak eta egikaritzekoak.

3. gaia: Udalerria. Biztanle asko dituzten udalerrietako udal antolamendua (Toki araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen X. titulua).

4. gaia: Bilboko Udalaren antolamendua. Erregelamendu organikoak.

5. gaia: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearena.

6. gaia: 6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal funtzio publikoari buruzkoa. Funtzionarioen eskubideak eta betebeharrak. Ordainsariak. Diziplina araubidea.

7. gaia: 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizkoa.

8. gaia: 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Lan arriskuen prebentzioari buruzkoa.

cek: BAO-2022a237-(II-5480)

9. gaia: 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa. Datuak babesteko 2016/679 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentu eta Kontseiluarena, 2016ko apirilaren 27koa, Datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituena eta 95/46/EE Zuzentaraua (Datuak babesteko Erregelamendu Orokorra) indargabetzen duena.

10. gaia: 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako. Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako Bilboko Udalaren V. Udal Plana.

11. gaia: Administrazio kontratazioa. Motak: elementuak eta subjektuak, kontratu publikoen arrazoia eta xedea. Kontratisten hautaketa sistemak eta kontratazio modua. Kontratuen formalizazioa.

12. gaia: Giza baliabideak arautzeko tresnak: enpleguko eskaintza publikoa, enplegu planak eta bestelako arrazionalizazio sistemak.

13. gaia: Toki erakundeetako langileak: motak eta araubide juridikoa. Tokiko funtzio publikoa: tokiko funtzionario motak. Langileak antolatzeko tresnak: plantillak eta lanpostuen zerrendak.

14. gaia: Toki erakundeen aurrekontu orokorra. Aurrekontu egitura. Sortzea eta onestea. Aurrekontua luzatzea. Aurrekontua egikaritu eta likidatzea.

15. gaia: Toki erakundeen ordenantzak eta erregelamenduak.

16. gaia: Gorte Nagusiak. Herriaren Defendatzailea. Arartekoa.

17. gaia: Estatuaren eta autonomia erkidegoen artean eskumenak banatzea. Eskumen banaketa Konstituzioan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuan.

18. gaia: Botere Judiziala. Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioa. Justizia Auzitegi Nagusia: antolaketa, esparrua eta osaera.

*Zati espezifikoa*

19. gaia: 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzkoa. Gobernu irekia, gardentasuna, datu irekiak eta herritarren parte-hartzea Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legean.

20. gaia: Administrazio egintzen eraginkortasuna eta horien baldintzak. Betearazpena eta etetea. Administrazio egintzen egikaritzea

21. gaia: Administrazio egintzaren balioezintasunaren teoria. Egintza deusezak edo deuseztagarriak. Administrazio egintzaren baliozkotzea. Ofiziozko berrikuspena.

22. gaia: Administrazio errekurtsoak. Kontzeptua. Printzipio orokorrak eta motak. Araubide juridikoa. Administrazio errekurtsoak ordezkatzeko prozedurak: kontziliazioa, bitartekaritza eta arbitrajea.

23. gaia: 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore publikoko kontratuei buruzkoa. Sektore publikoko kontratazioaren konfigurazio orokorra eta kontratuen egiturazko elementuak (xedapen orokorrak, itunen askatasuna, kontratua perfekzionatzea eta haren forma).

24. gaia: 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, SPKL; kontratuaren zatiak.

25. gaia: 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, SPKL; kontratua prestatzea eta adjudikatzea. Prozedurak: prozedura irekia, mugatua, negoziatua eta lehia elkarrizketa. Kontratu txikien zehaztapenak.

26. gaia: 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, SPKL. Administrazio kontratuen eraginak, horiek betetzea eta iraungitzea. Baliogabetasun araubidea eta errekurtsoak.

27. gaia: 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, SPKL; kontratazioa kudeatzeko antolakuntza administratiboa. Kontratazioaren arrazionalizazio teknikoa.

28. gaia: 1098/2001 Errege Dekretua, urriaren 12koa, Herri administrazioen kontratuei buruzko legearen erregelamendu orokorra onesten duena.

eek: BAO-2022a237-(II-5480)

29. gaia: Langileen Estatutuaren Legearen Testu Bategina: kontzeptua eta konstituzio printzipioak. Lan antolamenduaren iturriak. Lan kontratua. Zatiak. Kontratatzeko gaitasuna. Edukia. Langilearen eta enpresariaren prestazioa. Lan kontratua aldatzea, etetea eta iraungitzea. Kontratazio modalitateak.

30. gaia: Administrazio publikoen zerbitzura dauden langile lan kontratudunak. 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutua eta Euskal Funtzio Publikoaren Legea.

eek: BAO-2022a237-(II-5480)

ERANSKINA: ESKABIDEA

ANEXO: INSTANCIA

**Onarpen eskabidea / Solicitud de admisión**

**1. Deialdia / Convocatoria**

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Deialdiaren izena / Nombre Convocatoria: | | | | | | |
| Sartzeko sistemak: | Lehiaketa | ☐ | Oposizioa | ☐ | Oposizio-lehiaketa | ☐ |
| Sistemas de acceso: | Concurso | ☐ | Oposición | ☐ | Concurso-oposición | ☐ |
| **Txanda / Turno:** | Askea / Libre | ☐ | | | Barne-sustapena / Promoción interna | ☐ |

**2. Norberaren datuak / Datos personales**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Lehenengo abizena / Primer apellido | Bigarren abizena / Segundo apellido | Izena / Nombre | |
| NAN / AIZ / DNI / NIE: | Naziotasuna / Nacionalidad: | Jaioteguna / Fecha de Nacimiento: | Sexua / Sexo: E / M ☐ G / H ☐ |
| E-posta / Correo electrónico | | | |

* Helbide elektronikoa edo telefono mugikorra ematen duten parte hartzaileek horiek erabiltzeko baimena ematen diote Bilbao.eus OPEri hautatze-prozesuan zehar egin ditzakeen jakinarazpenetarako.

* Los participantes que faciliten una dirección electrónica o teléfono móvil consienten su utilización para las comunicaciones que Bilbao.eus OPE pueda efectuar en el transcurso del proceso selectivo.

| | |
|---|---|
| Herria / País | Lurraldea / Provincia |
| Bizilekua / Localidad | PK / CP |
| Helbidea / Dirección | Ataria, eskailera, solairua, eskua eta atea / Portal, bis, escalera, piso, mano y puerta |
| Telefonoa / Teléfono fijo* | Telefono mugikorra / Teléfono móvil* |

*Es necesario introducir el teléfono fijo o el móvil

| | |
|---|---|
| EGOKITZAPENA/ADAPTACIÓN<br>Bai / Si ☐ Ez/No ☐ | **Azterketa egiteko behar dituzun baldintza bereziak eta kausa argitu/Especifique las adaptaciones para realizar el examen** |

Aukera ezazu oposizio-aldia egiteko nahi duzun hizkuntza
Seleccione el idioma en el que desea hacer la fase de oposición.
Euskara / Euskera ☐ Gaztelania / Castellano ☐

**3.- Betebeharrak / Requisitos**

| |
|---|
| Deialdian eskatutako titulazioa / Titulación exigida en la convocatoria: |
| Deialdian eskatutako beste betekizun batzuk / Otros requisitos exigidos |

eek: BAO-2022a237-(II-5480)

### 4. Euskera

| Profila **egiaztatzen dut** (jarri "X" dagokion lekuan) / **Acredito** el perfil (marcar con una "X" el correspondiente) | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 HE / PL1 | ☐ | 2HE / PL2 | ☐ | 3HE / PL3 | ☐ | 4HE / PL4 | ☐ |

### 5. Hizkuntzak / Idiomas

Profila **egiaztatzen dut** (jarri "X" dagokion lekuan) / **Acredito** el perfil (marcar con una "X" el correspondiente)

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Ingelesa/ Inglés | B1 Maila/ Nivel B1 | ☐ | B2 Maila/ Nivel B2 | ☐ | C1 Maila/ Nivel C1 | ☐ | C2 Maila/ Nivel C2 | ☐ |
| Frantsesa/Francés | B1 Maila/ Nivel B1 | ☐ | B2 Maila/ Nivel B2 | ☐ | C1 Maila/ Nivel C1 | ☐ | C2 Maila/ Nivel C2 | ☐ |
| Alemana/Alemán | B1 Maila/ Nivel B1 | ☐ | B2 Maila/ Nivel B2 | ☐ | C1 Maila/ Nivel C1 | ☐ | C2 Maila/ Nivel C2 | ☐ |
| Besteak /Otros …………………….. | B1 Maila/ Nivel B1 | ☐ | B2 Maila/ Nivel B2 | ☐ | C1 Maila/ Nivel C1 | ☐ | C2 Maila/ Nivel C2 | ☐ |
| …………………….. | B1 Maila/ Nivel B1 | ☐ | B2 Maila/ Nivel B2 | ☐ | C1 Maila/ Nivel C1 | ☐ | C2 Maila/ Nivel C2 | ☐ |

### 6. Kontratazio zerrendetan sarrera / Ingreso en Listas o bolsas de Contratación

| **Laukietan BAI ala EZ idatzi / Escriba en los recuadros SÍ ó NO:** | | |
|---|---|---|
| Bilbao Ekintza EPELen indarrean dauden Oinarri Orokorren arabera, baimena ematen dut nire datuak Administrazio Publikoen beste erakunde batzuei lagatzeko, lan eskaintzak jasotze aldera.<br><br>Autorizo la cesión, a efectos de recibir ofertas de empleo, de mis datos personales a otras Entidades de las Administraciones Públicas, al amparo de lo establecido en las vigentes Bases Generales de Bilbao Ekintza, E.P.E.L. | BAI/SI<br><br>EZ/NO | ☐<br><br>☐ |
| Baimena ematen diot Bilbao Ekintza EPELi, bide telematikoen bidez, nire eskabidean aipatutako nortasun, ezgaitasun, titulazio akademiko, ziurtagiri, hizkuntza eskakizun, IT txartel eta gidabaimenen datuak kontsulta eta egiazta ditzan, bere izapidetze administratiborako, hauek eskuragarri dauden heinean. Ez baduzu baimen hau ematen, dagozkion agiriak erantsi beharko dituzu.<br><br>Autorizo a Bilbao Ekintza, E.P.E.L. a consultar y verificar por medios telemáticos los datos de identidad, discapacidad, títulos académicos, certificados, perfiles lingüísticos, IT txartelas y permisos de conducción alegados en la solicitud para su tramitación administrativa, en la medida de la disponibilidad de los mismos. En caso de no dar la autorización, deberá aportar los documentos acreditativos correspondientes. | BAI/SI<br><br>EZ/NO | ☐<br><br>☐ |
| Baimena ematen diot Bilbao Ekintza EPELi nire helbide elektronikoa eta telefono mugikorra erabiltzeko hautaketa prozesu honetan egin ditzakeen jakinarazpenetan.<br><br>Autorizo la utilización de la dirección electrónica y teléfono móvil aportados, para su utilización en las comunicaciones que Bilbao Ekintza, E.P.E.L. pueda efectuar en el transcurso del presente proceso selectivo. | BAI/SI<br><br>EZ/NO | ☐<br><br>☐ |

eek: BAO-2022a237-(II-5480)

**7.- Merituak / Méritos**

| Merituen zerrenda / Relación de méritos | |
|---|---|
| **1** | |
| **2** | |
| **3** | |
| **4** | |
| **5** | |
| **6** | |
| **7** | |
| **8** | |
| **9** | |
| **10** | |
| **11** | |
| **12** | |
| **13** | |
| **14** | |
| **15** | |

Leku zabalagoa behar izanez gero, datu edota informazio gehigarrirako, eskabideari gehitutako eranskin batean egin beharko da.

En caso de necesitar más espacio para incluir datos o información adicional, deberá hacerse incorporando un anexo a la solicitud.

**Lege-informazioa / Información legal**

Behean sinatu duen pertsonak ESKATU DU hautaketa-prozesu honetan onartua izan dadin, eta, gainera, adierazi du, bere erantzukizunpean, eskaera honetan jasotako datuak benetakoak direla. Eskaera, hain zuen ere, bertan jasotako jarraibideei jarraikiz bete du. Bestalde, adierazi du deialdia arautzen duten oinarri orokorretan eta oinarri espezifikoetan eskatzen diren baldintzak betetzen dituela, osasun-egoerari dagokionak barne hartuta, eta, hala eskatzen zaionean, eskaeran jasotako datu guztiak dokumentu bidez frogatzeko prest dago.

La persona abajo firmante SOLICITA su admisión en el presente proceso selectivo y declara, bajo su responsabilidad, que son ciertos los datos consignados en esta solicitud, que ha cumplimentado la misma de conformidad con las instrucciones contenidas en la misma y que reúne las condiciones exigidas en las Bases Generales y en las Bases Específicas que rigen la convocatoria, incluidas las que se refieren a mi estado de salud, comprometiéndose a probar documentalmente todos los datos que figuran en la solicitud cuando le sean requeridos.

**Jarri "X" laukitxoan / Marque con una "X" en el recuadro**

☐ ZIN EGITEN DUT EDO AGINDU EGITEN DUT / DECLARO BAJO JURAMENTO O PROMETO

Izangaiek emandako datuak Bilbao Ekintza EPELek tratatuko ditu, PERTSONALA izeneko tratamenduaren bidez. Organo arduraduna Bilbao Ekintzaren Giza Baliabideen Arloa da. Interesdunek datuak ikusi, haiek zuzendu, ezabatu eta haien eramangarritasuna, mugaketa edo aurka egiteko eskubideak erabili ahal izango dituzte, eta horretarako, idatzizko jakinarazpena bidali beharko dute helbide honetara: Bilbao Ekintza, EPEL. Norentzat: Sail Juridikoa. Nafarroa kalea, 5. 2. solairua. 48001 Bilbo.

Los datos facilitados por las personas aspirantes serán tratados por Bilbao Ekintza, E.P.E.L bajo el tratamiento denominado PERSONAL, cuyo órgano responsable es el Área de Recursos Humanos de Bilbao Ekintza. Las personas interesadas podrán ejercitar los derechos de acceso, rectificación, supresión de datos y la portabilidad, limitación u oposición, enviando una comunicación escrita a la siguiente dirección: Bilbao Ekintza, E.P.E.L. Att. Departamento Juridico. c/ Navarra, 5. 2ª planta. 48001 Bilbao.

tokia / lugar urtea / año hilabetea / mes eguna / día

Sinadura / Firma

**BILBAO EKINTZA E.P.E.L. Zuzendari Nagusia / Dirección General Bilbao Ekintza E.P.E.L.**

eek: BAO-2022a237-(II-5480)

ERANSKINA

**EGONKORTZEKO EZ OHIKO PROZESUAREN DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK, JABETZAN ETA LEHIAKETA SISTEMAREN BIDEZ HORNITZEKO ENPRESA PROMOZIOKO TEKNIKARIAREN LANPOSTU BAT**

## 1. Deialdiko lanpostua

Ez ohiko moduan, behin bakarrik eta lehiaketa sistemaren bidez enpresa promozioko teknikariaren lanpostu baterako deialdia egin da hauekin bat etorriz:

— Kategoria: B teknikaria.

— Barne sustapena: 1.

— Hizkuntza eskakizuna: 3. HE.

— Hautaketa sistema: lehiaketa.

Barne sustapena egongo dela dioen aipamenari dagokionez, ulertu behar da deialdietan aldi berean egingo dela txanda askeko eta barne sustapeneko prozesua. Hori horrela, prozesua gainditu duten bi txandetako izangaiak prozesu berean baldin badaude, barne sustapeneko prozesuaren bitartez parte hartu dutenek izango dute lanpostua eskuratzeko lehentasuna. Barne sustapeneko txandan izangairik ez badago, txanda askeko prozesutik baino ez da jarraituko prozesuarekin.

Lanpostuen izendapenak eta kategoriaren identifikazioa lanpostuen gaur egungo ezaugarriak kontuan hartuz erabiliko dira. Bilbao Ekintzaren lanpostuen katalogoa prestatzen ari garenez, baliteke horren ondoriozko egokitzapenak egin behar izatea guztiz prest dagoenean.

## 2. Parte hartzeko baldintzak

2.1. Plazak lortu nahi dituztenek egonkortzeko oinarri orokorretako 5.1 atalean oro har ezarritako betekizunak bete beharko dituzte.

## 3. Deitutako lanpostuari dagozkion betekizun espezifikoak

3.1. Laneratzeko titulazioa. Unibertsitateko gradu edo lizentziatura titulua izatea ikasketa hauetan:

Graduko unibertsitate titulua Zientzia Politikoak, Zientzia Ekonomikoak, Merkataritzako Intendentea edo Aktuariotza ikasketetan, Toki araubideko indarreko legezko xedapenen testu bategina onesten duen apirilaren 18ko 781/1986 Legegintza Errege Dekretuaren 169.2.a) artikuluarekin bat etorriz. Titulazio hori izan beharko dute hautagaiek eskariak/erantzukizunpeko deklarazioa aurkezteko epea bukatzen denean.

3.2. Euskara: Lanpostu honetarako betekizuna da euskararen 3. hizkuntza eskakizuna izatea.

## 4. Hautaketa prozesua

Hautaketa sistema lehiaketa izango da. Merezimendu guztiak eskaeran/erantzukizunpeko adierazpenean aipatu beharko dira berau aurkezteko epearen barnean.

Merezimenduak eskuratzeko gehieneko epea eskariak/erantzukizunpeko adierazpena aurkezteko azken eguna izango da.

Eskaera/erantzukizunpeko adierazpena zein egunetan aurkeztu den albo batera utzita, merezimenduak zenbatuko dira eskaerak/erantzukizunpeko adierazpenak aurkezteko azken egunera arte.

Prozesua kalifikatzeko baremo honi jarraituta batuko dira esleitutako puntuak:

a) Esperientzia orokorra

Administrazio publikoetako plazetan edo postuetan emandako zerbitzuak baloratuko dira, baldin eta horien laneratzeko betekizuna bat badator oinarri hauetako 3.1 ataleko aurreikuspenekin. Gehienez ere 30,00 (hogeita hamar) puntu eskuratu ahalko dira eta 3,75 (hiru koma hirurogeita hamabost) puntu jasoko dira lan egindako urte bakoitzeko edo sei hilabete baino gehiagoko aldi bakoitzeko.

eek: BAO-2022a237-(II-5480)

b) Esperientzia espezifikoa

Esperientzia orokorraren baloraziotik bereizita eta modu osagarrian baloratuko dira Bilbao Ekintzako enpresa promozioko teknikariaren lanpostuetako B teknikariaren kategorian emandako zerbitzuak graduko unibertsitate titulazioarekin edo baliokidearekin. Gehienez ere 60,00 (hirurogei) puntu eskuratu ahalko dira eta lan egindako urtebete edo sei hilabete baino gehiagoko aldi bakoitzeko 7,50 (zazpi koma berrogeita hamar) puntu eskuratuko dira 2015eko urtarrilaren 1etik aurrera zenbatzen hasita.

Prozesu hauek arautzen dituzten oinarri orokorrekin bat etorriz, administrazio publikoen kontzeptua indarreko araudiak esandakoaren arabera ulertuko da (bereziki, Enplegatu publikoaren oinarrizko estatutuaren testu bateginaren 2. artikuluaren arabera).

c) Beste meritu batzuk

Atal honetan gehienez ere 10,00 (hamar) puntu eskuratu ahalko dira.

c.1) Informatika ezagutzak:

Informatika ezagutzak baloratuko dira. 1,25 (bat koma hogeita bost) puntu emango dira maila aurreratuko ziurtagiri bakoitzeko eta 0,75 (zero koma hirurogeita hamabost) puntu oinarrizko mailako edo maila bakarreko ziurtagiri bakoitzeko:

— Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 edo ondorengoa.

— Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 edo ondorengoa.

— Microsoft Access 2000/XP/2003 edo ondorengoa.

— Internet.

— Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/2010 edo ondorengoa, maila bakarra.

— Microsoft Outlook XP/2003/2010 edo ondorengoa, maila bakarra.

Moduluak gainditu izana egiaztatzeko, IT Txartela ziurtapen sistema erabiliko da, oinarri orokorretan adierazitakoaren arabera. Modulu beraren zenbait bertsio egiaztatzen badira, horietako bakarra baloratuko da.

Deialdi honen ondorioetarako, maila aurreratua egiaztatzen dutenei oinarrizko maila ere egiaztatuko zaie, eta ondorioz, bakarrik goi-maila baloratuko da.

c.2) Hizkuntzak:

Gaztelania ez diren Europar Batasuneko hizkuntza ofizialak jakitea baloratuko da honakoaren arabera:

— B-2 maila edo handiagoa: 2,50 (bi koma berrogeita hamar) puntu.

Ezagutza egiaztatzen den hizkuntza bakoitzerako bakarrik ezagutza mailarik altuena puntuatuko da.

**5. Lan poltsa**

Deialdi honek ez du lan poltsarik sortuko.

eek: BAO-2022a237-(II-5480)

ERANSKINA: ESKABIDEA

ANEXO: INSTANCIA

**Onarpen eskabidea / Solicitud de admisión**

**1. Deialdia / Convocatoria**

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Deialdiaren izena / Nombre Convocatoria: | | | | | | |
| Sartzeko sistemak: | Lehiaketa | ☐ | Oposizioa | ☐ | Oposizio-lehiaketa | ☐ |
| Sistemas de acceso: | Concurso | ☐ | Oposición | ☐ | Concurso-oposición | ☐ |
| **Txanda / Turno:** | Askea / Libre | ☐ | | | Barne-sustapena / Promoción interna | ☐ |

**2. Norberaren datuak / Datos personales**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Lehenengo abizena / Primer apellido | Bigarren abizena / Segundo apellido | | Izena / Nombre |
| NAN / AIZ / DNI / NIE: | Naziotasuna / Nacionalidad: | Jaioteguna / Fecha de Nacimiento: | Sexua / Sexo:<br>E / M ☐ G / H ☐ |
| E-posta / Correo electrónico | | | |

* Helbide elektronikoa edo telefono mugikorra ematen duten parte hartzaileek horiek erabiltzeko baimena ematen diote Bilbao.eus OPEri hautatze-prozesuan zehar egin ditzakeen jakinarazpenetarako.

* Los participantes que faciliten una dirección electrónica o teléfono móvil consienten su utilización para las comunicaciones que Bilbao.eus OPE pueda efectuar en el transcurso del proceso selectivo.

| | |
|---|---|
| Herria / País | Lurraldea / Provincia |
| Bizilekua / Localidad | PK / CP |
| Helbidea / Dirección | Ataria, eskailera, solairua, eskua eta atea / Portal, bis, escalera, piso, mano y puerta |
| Telefonoa / Teléfono fijo* | Telefono mugikorra / Teléfono móvil* |

*Es necesario introducir el teléfono fijo o el móvil

| | |
|---|---|
| EGOKITZAPENA/ADAPTACIÓN<br>Bai / Si ☐ Ez/No ☐ | **Azterketa egiteko behar dituzun baldintza bereziak eta kausa argitu/Especifique las adaptaciones para realizar el examen** |

Aukera ezazu oposizio-aldia egiteko nahi duzun hizkuntza
Seleccione el idioma en el que desea hacer la fase de oposición.
Euskara / Euskera ☐ Gaztelania / Castellano ☐

**3.- Betebeharrak / Requisitos**

| |
|---|
| Deialdian eskatutako titulazioa / Titulación exigida en la convocatoria: |
| Deialdian eskatutako beste betekizun batzuk / Otros requisitos exigidos |

eek: BAO-2022a237-(II-5480)

### 4. Euskera

| Profila **egiaztatzen dut** (jarri "X" dagokion lekuan) / **Acredito** el perfil (marcar con una "X" el correspondiente) | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 HE / PL1 | ☐ | 2HE / PL2 | ☐ | 3HE / PL3 | ☐ | 4HE / PL4 | ☐ |

### 5. Hizkuntzak / Idiomas

Profila **egiaztatzen dut** (jarri "X" dagokion lekuan) / **Acredito** el perfil (marcar con una "X" el correspondiente)

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Ingelesa/ Inglés | B1 Maila/ Nivel B1 ☐ | B2 Maila/ Nivel B2 ☐ | C1 Maila/ Nivel C1 ☐ | C2 Maila/ Nivel C2 ☐ |
| Frantsesa/Francés | B1 Maila/ Nivel B1 ☐ | B2 Maila/ Nivel B2 ☐ | C1 Maila/ Nivel C1 ☐ | C2 Maila/ Nivel C2 ☐ |
| Alemana/Alemán | B1 Maila/ Nivel B1 ☐ | B2 Maila/ Nivel B2 ☐ | C1 Maila/ Nivel C1 ☐ | C2 Maila/ Nivel C2 ☐ |
| Besteak /Otros …………………….. | B1 Maila/ Nivel B1 ☐ | B2 Maila/ Nivel B2 ☐ | C1 Maila/ Nivel C1 ☐ | C2 Maila/ Nivel C2 ☐ |
| …………………….. | B1 Maila/ Nivel B1 ☐ | B2 Maila/ Nivel B2 ☐ | C1 Maila/ Nivel C1 ☐ | C2 Maila/ Nivel C2 ☐ |

### 6. Kontratazio zerrendetan sarrera / Ingreso en Listas o bolsas de Contratación

| **Laukietan BAI ala EZ idatzi / Escriba en los recuadros SÍ ó NO:** | |
|---|---|
| Bilbao Ekintza EPELen indarrean dauden Oinarri Orokorren arabera, baimena ematen dut nire datuak Administrazio Publikoen beste erakunde batzuei lagatzeko, lan eskaintzak jasotze aldera.<br><br>Autorizo la cesión, a efectos de recibir ofertas de empleo, de mis datos personales a otras Entidades de las Administraciones Públicas, al amparo de lo establecido en las vigentes Bases Generales de Bilbao Ekintza, E.P.E.L. | BAI/SI ☐<br><br>EZ/NO ☐ |
| Baimena ematen diot Bilbao Ekintza EPELi, bide telematikoen bidez, nire eskabidean aipatutako nortasun, ezgaitasun, titulazio akademiko, ziurtagiri, hizkuntza eskakizun, IT txartel eta gidabaimenen datuak kontsulta eta egiazta ditzan, bere izapidetze administratiborako, hauek eskuragarri dauden heinean. Ez baduzu baimen hau ematen, dagozkion agiriak erantsi beharko dituzu.<br><br>Autorizo a Bilbao Ekintza, E.P.E.L. a consultar y verificar por medios telemáticos los datos de identidad, discapacidad, títulos académicos, certificados, perfiles lingüísticos, IT txartelas y permisos de conducción alegados en la solicitud para su tramitación administrativa, en la medida de la disponibilidad de los mismos. En caso de no dar la autorización, deberá aportar los documentos acreditativos correspondientes. | BAI/SI ☐<br><br>EZ/NO ☐ |
| Baimena ematen diot Bilbao Ekintza EPELi nire helbide elektronikoa eta telefono mugikorra erabiltzeko hautaketa prozesu honetan egin ditzakeen jakinarazpenetan.<br><br>Autorizo la utilización de la dirección electrónica y teléfono móvil aportados, para su utilización en las comunicaciones que Bilbao Ekintza, E.P.E.L. pueda efectuar en el transcurso del presente proceso selectivo. | BAI/SI ☐<br><br>EZ/NO ☐ |

eek: BAO-2022a237-(II-5480)

**7.- Merituak / Méritos**

| Merituen zerrenda / Relación de méritos | |
|---|---|
| **1** | |
| **2** | |
| **3** | |
| **4** | |
| **5** | |
| **6** | |
| **7** | |
| **8** | |
| **9** | |
| **10** | |
| **11** | |
| **12** | |
| **13** | |
| **14** | |
| **15** | |

Leku zabalagoa behar izanez gero, datu edota informazio gehigarrirako, eskabideari gehitutako eranskin batean egin beharko da.

En caso de necesitar más espacio para incluir datos o información adicional, deberá hacerse incorporando un anexo a la solicitud.

**Lege-informazioa / Información legal**

Behean sinatu duen pertsonak ESKATU DU hautaketa-prozesu honetan onartua izan dadin, eta, gainera, adierazi du, bere erantzukizunpean, eskaera honetan jasotako datuak benetakoak direla. Eskaera, hain zuen ere, bertan jasotako jarraibideei jarraikiz bete du. Bestalde, adierazi du deialdia arautzen duten oinarri orokorretan eta oinarri espezifikoetan eskatzen diren baldintzak betetzen dituela, osasun-egoerari dagokionak barne hartuta, eta, hala eskatzen zaionean, eskaeran jasotako datu guztiak dokumentu bidez frogatzeko prest dago.

La persona abajo firmante SOLICITA su admisión en el presente proceso selectivo y declara, bajo su responsabilidad, que son ciertos los datos consignados en esta solicitud, que ha cumplimentado la misma de conformidad con las instrucciones contenidas en la misma y que reúne las condiciones exigidas en las Bases Generales y en las Bases Específicas que rigen la convocatoria, incluidas las que se refieren a mi estado de salud, comprometiéndose a probar documentalmente todos los datos que figuran en la solicitud cuando le sean requeridos.

**Jarri “X” laukitxoan / Marque con una “X” en el recuadro**

☐ ZIN EGITEN DUT EDO AGINDU EGITEN DUT / DECLARO BAJO JURAMENTO O PROMETO

Izangaiek emandako datuak Bilbao Ekintza EPELek tratatuko ditu, PERTSONALA izeneko tratamenduaren bidez. Organo arduraduna Bilbao Ekintzaren Giza Baliabideen Arloa da. Interesdunek datuak ikusi, haiek zuzendu, ezabatu eta haien eramangarritasuna, mugaketa edo aurka egiteko eskubideak erabili ahal izango dituzte, eta horretarako, idatzizko jakinarazpena bidali beharko dute helbide honetara: Bilbao Ekintza, EPEL. Norentzat: Sail Juridikoa. Nafarroa kalea, 5. 2. solairua. 48001 Bilbo.

Los datos facilitados por las personas aspirantes serán tratados por Bilbao Ekintza, E.P.E.L bajo el tratamiento denominado PERSONAL, cuyo órgano responsable es el Área de Recursos Humanos de Bilbao Ekintza. Las personas interesadas podrán ejercitar los derechos de acceso, rectificación, supresión de datos y la portabilidad, limitación u oposición, enviando una comunicación escrita a la siguiente dirección: Bilbao Ekintza, E.P.E.L. Att. Departamento Juridico. c/ Navarra, 5. 2ª planta. 48001 Bilbao.

tokia / lugar urtea / año hilabetea / mes eguna / día

Sinadura / Firma

**BILBAO EKINTZA E.P.E.L. Zuzendari Nagusia / Dirección General Bilbao Ekintza E.P.E.L.**

eek: BAO-2022a237-(II-5480)